

# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2004ko urtarrilaren 23a

IV. urtea • 140. zenbakia • DOAN BANATZEKO



**IMANOL BOLINAGA**  
*“Euskadiko ordezkariak badu errekonozimendua Bruselan” /7*

**Goienka2a**  
 Dantza ikastaroak, arakastatsu Debagoiengan

## Oraingo astean hasiko dira banatzen ibarreko telefonoen gidak

Debagoieneko telefonoen gidak banatzen hasiko dira oraingo astean. Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibak argitaratzen ditu gidok eta telefono partikularrak zein denda, taberna, profesional, enpresa eta abarrenak jasozten ditu.

Bergara aldekoak banatuko dituzte lehenengo. Hau da, Bergarako, Antzuolako eta Elgetako telefonoak jasotzen dituzten gidak.

Otsaileko lehenengo egunetan, ostera, Leintz aldekoak (Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Aramaio eta Leintz Gatzaga) eta Oñatikoa banatzeari ekingo diote.

GOIENKARIA egubakoitzean jasotzen dutenen etxeetan lagako dituzte gidak, batez ere; baita hainbat enpresa, denda eta tabernatan ere. Goienak urtero-urtero argitaratzen ditu telefonoen gidak, berrituta.

### ARRASATE

#### Enrike Letona askatzeko Bilguneak jarduna eten du

Enrike Letonaren askatasuna eskatzeko Arrasaten sortutako Bilguneak jarduna etetea erabaki du, Enrike Letonaren askatasuna lortuta. Bilgunean, herriko zenbait gizarte eragilek eta alderdi politikoetako ordezkariak hartu dute parte. Letona jasaten ari zen injustizia salatzeko eta haren askatasuna lortzea izan dira euren helburuak. Abenduaren 18an utzi zuten aske Letona. /4

### BERGARA

#### Martxoan hasiko dituzte Agorrosingo kirolguneko lanak

Hainbat atzerapenen ondoren, azkenean martxoan hasiko dira Bergarako Agorrosingo kirolguneko lanak berria eraikitzen. Hiru fasetan egingo dituzte lanak, eta lehenengo fasea esleitzeko baldintzak prestatzen dihardute. Lehenengo fase horretan, besteak beste, haxe egingo dute: bi igerileku estali (21x25 m eta 20x5,5 m), aldagelak, gimnasioa, squasherako pilotalekua, haurtzaindegia eta kafetegijatetxea. /6

## ASTEKO GAIA: JAURLARITZA ETA IBARREKO UDALAK, LANKIDETZAN /3

# Tranbia eta AHT, guretik gertuago

Debagoieneko tranbiaren lehen zatia egiteko lanak 2005ean esleitu nahi dituzte. Bestalde, AHTrako, ibarretik “hurbil” dagoen

lotura bat lortzen saiatuko da Eusko Jaurlaritza. Horiek eta beste hainbat azalpen eman zituen eguaztenean Alvaro

Amann Garraio sailburuak. Mondragoen egon zen Amann, ibarreko alkateekin batzartuta, alkateek eskatuta. /3



Alvaro Amann Herrilan eta Garraio sailburua Mondragoen egon da aste honetan.

### DEBAGOIENA

#### 515 ume jaio ziren iaz ibarrean, 2002an baino 18 gehiago

Debagoieneko Eskualde Ospitaleko Amatasun Sailak emandako datuen arabera, 515 ume jaio ziren iaz gure ibarrean, 2002an baino 18 gehiago, hain zuzen ere. Urte berria ere martxa onean hasi dute: dagoeneko 42 ume jaio dira. 2002an, 497 ume jaio ziren Debagoieneko Eskualde Ospitalean. /5

Audi A4 Avant berria ikusteko beste modu bat dago

**Udalaitz** Audi

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

**2. Merkealdia**

SPORTLAND ARRASATE Garibai Etorbidea, 2-6

**SPORTLAND** FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA


www.forumspor.com

# Gu bagara 'Asteleheneko Goienkaria'-ko harpidedun. Egin zaitez zu ere!



**LARRAITZ TROJAOLA** |  
HERRI ANITZA-KO KIDEA,  
ARRASATE

"Hurbileko informazioa jasotzen jarraitu nahi dut. Egutero jaso nahi nuke, eta, proiektu hau hori lortzeko pauso bat denez, harpidedun egin nintzen. Internet bidez eman nuen izena, [www.goiena.net](http://www.goiena.net) helbidean".



**PEIO URIZAR** |  
EA-KO KIDEA,  
ARRASATE

"Euskarazko bide guztiak indartu behar direla uste dut. Gainera, astelehenetan ez da *Berria* egunkaria kale-ratzen, eta gustura irakurriko dut *Asteleheneko Goienkaria*. Ea jende asko animatzen den".



**JOXE ETXEBERRIA** |  
ZINEGOTZIA (ARALAR),  
ARRASATE

"Ibarreko komunikazio sistema bultzatzeko bide bat da hau, eta hasieratik egin naiz harpidedun. Hala ere, kezkatzen nau kirolak pisu handiegia ez ote duen hartuko. Gaiak orekatzeko saiatu beharko da".



**UXUE ZABALETA** |  
LANGILEA,  
BERGARA

"Euskal prentsaren aldekoa naiz, batetik, eta herri mailako ekimenak herritarrok bultzatu behar ditugu. Orain, asteburuko kronikak jasoko ditugu, gainera. Jendeak interes handia duela sumatu dut".



**JUAN JOSE ALTUNA** |  
PINTOREA,  
BERGARA

"*Asteleheneko Goienkaria* ateratzea ideia ona dela iruditzen zait. Bertako albisteak jasotzen ditu GOIENKARIAK; euskaraz, gainera, eta hori gustatzen zait. 0 zenbakiak ekarri zuen txartela bete nuen".



**DAMASO GALLASTEGI** |  
IRAKASLEA,  
BERGARA

"Telebistak berehala kontatzen dizkigu kanpoko notiziak, baina bertakoak ere oso garrantzitsuak dira. Herrikoaz gain, baita ibarrekoak ere, eta laster astelehenetan ere jasoko ditugu".



**ENERITZ URBIETA** |  
JARDUN ELKARTEKOA,  
BERGARA

"Santamas egunean Arrasaten bertan jaso nuen 0 zenbakia, eta asko gustatu zitzaidan. Gainera, beharrezkoa iruditzen zait herriko eta ibarreko notiziak jakitea, eta berehala egin nintzen harpidedun".



**JOSE ANTONIO ASPIAZU** |  
IRAKASLEA ETA  
HISTORIALARIA, OÑATI

"Normalean gure ibarreko berri gutxi dakarke komunikabideek. Hiriburuetakoa kontu asko dakarte eta herriak baztertzen dituzte. Bertako notiziak jasotzen dituzten proiektuak behar dira".



**ALAZNE INTZA** |  
LAIXAN ELKARTEA,  
OÑATI

"Ni Laixan elkartearen bertan egin nintzen harpidedun, eta kideak animatu nahi izan ditugu, harpidetza merkeago eskainita. Jendeak ondo erantzun duela uste dut, informazio zuzena dakarrelako".



**JOSE MARI SARASUA** |  
HIRUATX-EKO KIDEA,  
ARETXABALETA

"Ikusi nuen 0 zenbakia, eta harpidetza txartela bete nuen. Produktu egokia iruditu zitzaidan. Egunkariak herriaren izaera islatu behar du, eta uste dut *Asteleheneko Goienkaria*-k bide hori hartu duela".



**MIKEL URIBETXEBERRIA** |  
EAJ-KO KIDEA,  
ARETXABALETA

"Herriko eta inguruko notiziak gustura irakurtzen ditut egubakoitzeko GOIENKARIA, eta *Asteleheneko Goienkaria* ere jaso nahi dut. 0 zenbakia gustatu zitzaidan, eta barruan zetorren txartela bete nuen".



**GARBIÑE BEITIA** |  
DISEINUGILE GRAFIKOA,  
ESKORLATZA

"Egubakoitzeko GOIENKARIA bezain duina eta kalitatezkoa izango da. 0 zenbakia gustatu zitzaidan, gehien kulturako kronikak, eta diseinua oso aproposa dela uste dut. Etxekoak eta lagunak ere animatu ditut".



**GOTZON IPARRAGIRRE** |  
IRAKASLEA,  
ANTZUOLA

"Batzuei arraro egin zaie ordaindu beharra, baina produktuaren aldeko iritziak entzundak, Nik neuk oso itxurara ona hartu diot, eta txartela bete eta postaz egin nintzen harpidedun".



**ROSA MONDRAGON** |  
EUSKARA TEKNIKARIA,  
ARAMAIO

"Oso interesgarria iruditzen zait produktu berri hau. Asteburuan ibarrean gertatu dena jakingo dugu, eta euskaraz, gainera. Ingaruan ere oso iritzi onak jasotzen ditut, eta jendea harpidetuko dela uste dut".



**JUANITO UNTZETABARRENETXEA** |  
ERRETIRATUA,  
ELGETA

"Barikutan banatzen den GOIENKARIA izugarri maite dut, herriko eta inguruko berriak ekartzen dituelako, eta *Asteleheneko Goienkaria* ere jaso nahi dut. Gainera, ordaindu behar dena huskeria da".



## Mamia

### Ekitaldi publikoak

Gero eta gutxiago geratzen da *Asteleheneko Goienkaria*-ren lehen zenbakia argitaratzeko eguna heltzeko. Aurreko astean aurreratu genizuen bezala, otsailaren 16an kaleratuko da lehenengoa eta hortik aurrera astelehenero. Egunkari saltokietan eskuratu ahal izango da 0,8 euro ordainduta, baina urte osorako harpidedun eginez gero eta 25 euro ordainduz gero, %20 merkeago irteten da eta, gainera, etxean jasotzeko aukera dago. Beraz, animatu zaitezte eta egin zaitezte harpidedun.

Kanpaina bide onetik doa. Badakizue bost modu nagusi daukela harpidedun egiteko: harpidetza txartela betez, telefonoz, [www.goiena.net](http://www.goiena.net) Internet ataria erabiliz, posta elektronikoz edo faxez. Orain arte harpidetza txartela erabili dute gehienek (%53); gero, telefonoa (%40); [www.goiena.net](http://www.goiena.net) web orria %5ek erabili du, eta faxa edo posta elektronikoa, %2k.

Harpidetza kanpainarekin segituz, hainbat ekitaldi publiko egingo dira herriz herri ondorengo asteetan. Helburua izango da, batik bat, *Asteleheneko Goienkaria*-ren berri ematea eta harpidedun berriak lortzea, eta, bide batez, Goiena ezagutzera ematea. Hainbat pertsona ezagunek hartuko dute parte ekitaldiotan. Dagoeneko zehaztuta dago **Arrasaten** noiz izango den: otsailaren 5ean, egunean, 19:00etan Udaletxeko Osoko Bilkura aretoan. Beste herrietan ere egingo dira.

**'Asteleheneko Goienkaria'-ren berri emango da otsailaren 5ean Arrasaten**

# Tranbiaren ibilbidea finkatuago dago, eta 2005ean hasiko da

## AHTrekin, ibarrerako "gertuko lotura" bilatuko du Jaurlaritzak

LEIRE KORTABARRIA

**D**ebagoieneko tranbia eta Abiadura Handiko Trenarekiko gure harremana zelakoak izango diren apur bat argiago dago. Besteak beste, tranbiaren ibilbidea Vasco-Navarro trenbide zaharraren bidetik joango dela; Arrasateren kasuan, Zarugaldetik eta Gipuzkoa etorbideetik pasako dela; eta ibilbidea apiril inguruan finkatuko dela ziurta daiteke. Aldi berean, ibarreko udalok, Mankomunitateak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak lanerako komisio mistoa osatuko dute, eta datozen hiru hilabeteotan hasiko da lanean talde hori. Horrenbestez, tranbiaren lehen zatia 2005ean atera nahi dute lehiaketara.

Horiek jakin izan ditugu joan den eguaztenean Alvaro Amann Herrilan eta Garraio Sailburuak Arrasaten emandako prentsurrekoa dela-eta. Alkateok eskatuta etorri zen Amann gurera, eta bi garraio proiektu handiren gaineko argibideak eman zituen: tranbia eta Abiadura Handiko Trena. Amannez gain, Inazio Lakuntza Mankomunitateko presidentea, ibarreko alkateak eta Jesus Catania MCCko presidentea egon ziren ekitaldian.

### ARETXABALETAKO BERGARA, 2005EAN

Tranbiaren ibilbidearen lehen zirriborro bat 2002an egin zuten. Orduko erabaki garrantzitsuetako batzuei eutsi egin die Jaurlaritzak, eta alkateok ados agertu dira: adibidez, ziurra da egingo den lehenengo zatia Are-



Alvaro Amann Herrilan eta Garraio Sailburuak garraio proiektuen gaineko argibideak eman zituen Mondragoen.

txabaleta-Bergara izango dela. Inazio Lakuntzaren esanetan, "hori da zirkulazio dentsitate altueneko zatia, eta 2005ean hasiko gara horretan lanean". Gero, Aretxabaleta-Eskoriatza eta Elorregi-Oñati zatiak egingo dituzte, ahaztu barik tranbiak Deba arro osoa zeharkatuko duela, ez bakarrik Debagoiena, eta lotura hori egin beharko dutela.

Amann sailburuak eta ibarreko alkateok eguaztenean bertan izandako bileran, ez zuten finkatu tranbia herri bakoitzera noiz iritsiko den.

### LOTURA HURBILAGO BATEN BILA

Abiadura Handiko Trenari dagokionez, berri nagusia da AHTk ez duela Debagoiengan geltokirik izango; hori bai, Garraio sailburuak honakoa esan zuen: "Geltoki bat hemen egitea zaila da, baina saiaturik gara trenak ahalik eta loturarik hurbilena izan dezan Debagoienarekin". Hasieran, geltoki hurbilena Ezkio-Itsason egongo zela esan zen.

Prentsurrekoan, Amannek esan zuen ez zutela "itxaropen faltsurik" sortu nahi, baina ahaleginduko zirela Zumarragatik

Beasainerako tartean Debagoienak ahalik eta loturarik gertukoena izatea, eta Zumarragaren "esanguratsutasuna" azpimarratu zuen.

Bai Amannek, bai Lakuntzak, bai eta MCCko presidente Jesus Cataniak esan zuten AHTk garrantzi handia izango duela ibarreko ekonomian, eta trenaren helburu nagusia merkatuzien garraioa izango dela esan zuen Amannek; hala ere, alkateok eskatuta, esan zuen etorkizunean posible izango dela bidaia-riak ere garraiatzea.

## Trenbidea, norendako?

**T**ranbiak pizten du, oraingoz, Debagoieneko alkate eta erakundeon interesik handiena. Ibilbidearen zirriborroa dute orain alkateok mahai gainean, eta, aztertu behar-ko duten arren, badirudi behin betikoa izateko aukera handiak dituela. Gauza bat argi dago: tranbiak Vasco-Navarro tren zaharraren bidea aprobetxatuko duela.

Eta horrek, hain zuzen, arazoak ekar ditzake. Izan ere, Debagoiengan hainbat garraio proiektu abian jarri dira edo jarriko dira laster: Eibar-Gasteiz autobidea; tranbia; Abiadura Handiko Trena; eta Diputazioaren bizikleta-bide sarearen plana, garrantzitsuenen artean. Eta Aldundiaren bizikleta-bideen egitasmoak ere Vasco-Navarro trenbidea erabiltzea proposatzen du; izan ere, hainbat zatitan egin dira dagoeneko egokitzapen lan horiek.

Alvaro Amannek esan zuen erakunde guztiak bateratuko dituen komisio mistoa sortuko dela laster, irizpideak finkatu eta Debagoieneko garraio sare konplexua askatzeko. Badirudi, ordea, garraibide guztion konbinazio egokian dagoela erantzuna.



**ANDONI GARTZIA**

OÑATIKO ALKATEA

**O**ñatiarrondako, tranbia eta AHT egitasmo garrantzitsuenak dira. Gurean ere, Vasco-Navarro trenbide zaharraren bidetik pasako da tranbia; baina zailtasunak egongo dira ibilbidea zehazteko, Oñatiko gune industrialak direla-eta, eta, batez ere, Elorregiko autobidearen azpiegiturak hor daudelako.



**JUAN KARLOS BENGOA**

ESKORIATZAKO ALKATEA

**G**uk gura genuen Eskoriatzara lehen fase batean hel zedin tranbia, baina hori ez da oraindik eztabaidatu; hala ere, Jaurlaritzak konprometitu da gure kasua aztertzeke. Garrantzitsua da tranbia Eskoriatzara lehenbailehen iristea; Intxaurtxuetara 2007. urterako iristea gurako guke.

## Bilkura isilak egin zituzten udaletxean

**P**rentsurreko bano lehenago, hainbat taldek Abiadura Handiko Trenaren aurkako iritzia azaldu zuten Arrasateko udaletxean. Hain zuzen ere, Arrasateko Ezker Batua taldeak eta AHT Gelditu! elkarlanak elkarretaratzeko isilak egin zituzten osoko bilkura aretoaren kanpoan.

Bestalde, Arrasateko Batasuna taldeak adierazpen bat kaleratu du bere jarrera jakin arazteko. AHT "Europan egin nahi den azpiegiturarik txikitzaileena" eta Euskal Herriko barne komunikaziorik "ez diola lagunduko" esan du Batasunak.





Argazkian ikusten ditugu bilguneako kide izan direnak, Enrike Letona bera erdi-erdian dagoela.

GOIENKARIA

## Enrike Letona askatzeko Bilguneak oraingo jarduna etetea erabaki du

*Taldea ez da desegingo, Letona hiru urteren buruan epaituko baitute*

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Enrike Letonaren askatasuna eskatzeko Arrasaten sortutako Bilguneak jarduna etetea erabaki du, Enrike Letonaren askatasuna lortuta. Bilgunean, herriko zenbait gizarte eragilek eta alderdi politikoetako ordezkariak hartu dute parte.**

Jarduna etetea erabaki du Enrike Letonaren askatasuna eskatzeko Arrasaten urrian sortu zen Bilguneak. Letona jasaten ari zen

injustizia salatzea, eta haren askatasuna lortzea izan dira euren helburuak. Taldean, herriko gizarte eragileak, alderdi politikoetako ordezkariak eta Letonaren senide eta lagunak izan dira.

Abenduaren 18an utzi zuten aske, eta helburua lortzeko egindako jarduerekin pozik azaldu dira Bilguneakoak. "Agente ugariaren aldetik konpromisozko jarrera egokia jaso dugu, eta herritarren atxikimendua ere bai".

Horrela, bada, bertan behera utzi dituzte esku artean zituzten

gestioak eta ekitaldiak. Hala ere, Enrike Letona hiru urteren buruan epaituko dute, eta epaiketaren zain geratuko dira Bilguneako kideak. Horregatik erabaki dute taldea ez desegitea.

Letonak 30 urteko kartzela zigorra bete du (ia 16 urte egon da espetxean), eta baliteke epaiketa horretan epailearen zigorra jasotzea, nahiz eta zigor hori alde aurretik beteta izan. Bilguneoek eskerrak eman nahi dizkiete ekimenetan parte hartu edo laguntza eman duten guztiei.

## Debagoieneko telefonoen gidak banatzen hasiko dira oraingo astean

GOIENKARIA

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibak argitaratzen dituen ibarreko telefono gidak oraingo astean hasiko dira banatzen.

Bergara aldekoak banatuko dituzte lehenengo. Hau da, Bergara, Antzuola eta Elgetako telefonoak jasotzen dituzten gidak.

Otsaileko lehenengo egunetan, osterara, Leintz aldekoak (Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Aramaio eta Leintz Gatzaga) eta Oñatikoa banatzeari ekingo diote.

GOIENKARIA egubakoitzean jasotzen dutenen etxeetan lagako dituzte gidak batez ere; baita hainbat enpresa, denda eta tabernatan ere.

Goiinak urtero-urtero argitaratzen ditu telefonoen gidak, berrituta, eta Debagoieneko informazio telefoniko ahalik eta zehatzena dakarte.

Gidotan, ibarreko telefono partikular ia guztiak agertzeaz gainera, profesionalenak eta taberna, jatetxe, denda eta enpresetakoak ere jasotzen dira.

## Hiri hondakinei buruzko gida kaleratu du Mankomunitateak

*Hondakin bilketa zerbitzuetan hobekuntzak izango dira*

I.A.

**Debagoieneko Mankomunitateak hiri hondakinen esparruan eskaintzen dituen zerbitzuen gaineko gida osatu du. Bertan, herritarrek hondakin mota bakoitzari ingurumenarekiko irtenbide egokiena emateko informazioa aurkituko dute.**

Liburuxka formatuko 14 orrialdeko gida kaleratu du Debagoieneko Mankomunitateak hiri hondakinen gainean. Ibarreko etxe guztietan banatuko dituzte gidak etxeko hondakin handien bilketa egunen egutegiarekin batera.

Gida horren bidez, zerbitzuen erabilera eta ezagutza erraztu nahi da, herritarrek erabil ditzaketan zerbitzuen berri modu erraz eta erabilgarrian emanda.

Besteak beste, agertuko dira zer biltzen den, zer ez den utzi

behar, zerbitzua zeinendako den eta erabilera arauak.

Bestalde, Debagoieneko Mankomunitateak jakinarazi du hainbat hobekuntza ezarriko dituela hasi berri den 2004. urtean, hiri hondakin zerbitzuei dagokienez.

Batetik, atez ateko kartoi komertzial eta industrialen bilketa maizago egingo dute. Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko herriguneetan egunero jasoko dituzte, astegunetan. Ibarreko beste udalerrietan, industriaguneetan eta auzoetan bilketa astearte eta egunetan egingo dute. Bestalde, etxeko hondakin handien bilketa, otsailaren 1etik aurrera, astero egingo dute. Azkenik, Elgetan eta Antzuolan sukaldako olio erabilia eta etxeko bestelako hondakin arriskutsuak hilean behin jasoko dituzte.

Hobekuntza horiek guztiak otsailean ipiniko dituzte abian.



### Arlaban itxita, kamioi baten matxuragatik

Zama berezia zeraman kamioi batek matxura izan zuen eguazten goizean Arlabango mendatean, eta errepide erdian geratu zen. Eguerdiko 13:00etan garabia kamioiak matxura izandako tokira gerturatu zen arren, arratsaldeko 15:30ak arte ez zuten Arlabango mendateko errepidea ireki, eta orduan ere noranzko bakarrean. Kamioiaren matxura zela eta, auto ilara luzeak sortu ziren. Leintz Gatzagako errepidetik joan baziren ere, kamioi mordoak geratu zen Arlabanen harrapatuta. //I.A.



Arrasateko Maala errebaletan gaude, errotondaren ondoan.

**Zatoz!**

Tel.: 943 79 19 14



**Eskaintza bereziak! Eskaintza bereziak! Eskaintza bereziak! Eskaintza bereziak!**

# Debagoieneko ospitalean 515 ume jaio ziren iaz, 2002an baino 18 gehiago

Urte berriko lehendabiziko hiru asteotan, 42 ume jaio dira dagoeneko

NEREA ZUBIETE/AINTZANE IRIZAR

**Debagoieneko Eskualde Ospitaleko Amatasun Sailak emandako datuen arabera, 515 ume jaio ziren iaz gure ibarrean, 2002an baino 18 gehiago, hain zuzen ere. Urte berria ere martxa onean hasi dute: dagoeneko 42 ume jaio dira.**

Azkeneko urteotan jaiotza kopurua beherantz doala sarri entzun dugun arren, badirudi Debagoienean, behintzat, hori ez dela horrela. Izan ere, aurreko bi urteotako

datuei begiratu besterik ez dugu, jaiotza kopuruak gora egin due-la ikusteko.

2002an, 497 ume jaio ziren Debagoieneko Eskualde Ospitalean; iaz, berriz, 515 ume. Kopuru horiei, ibarretik kanpoko ospitaleetan jaiotako umeak gehitu behar zaizkie. Azken urteotan bezala, maiatza izan zen hilabeterik oparoena: 57 ume jaio ziren; eta otsailean jaio zen ume gutxien: 27, hain zuzen ere.

Iaz Debagoienean jaiotako 515 ume horietatik, gehienak neskatilak izan ziren: 288 neskatila jaio

ziren; mutikoak, berriz, 227 izan ziren, guztira.

## URTEA MARTXA ONEAN HASI DA

Oraindik hiru bat aste besterik ez da pasatu urte berria hasi zenetik, eta dagoeneko 42 ume jaio dira Debagoieneko ospitalean. Iaz, urtarrilean, 47 ume jaio ziren.

Aurtengo jaiotza kopuruaren aurreikuspenak eta balorazioak egiteko oraindik goiz den arren, ospitalean esan digutenaren arabera, apirilera, esaterako, jaiotza ugari espero dituzte.



MIREN IBABE

Iaz jaiotako 515 umeetatik, 288 neskatilak ziren, eta 227, mutikoak.

## DEBAGOIENEAN LABUR

### Arizmendi hezkuntza proiektua aurkeztuko dute ikasleek, dantza eta musikaren bidez

Arizmendi ikastolaren hezkuntza proiektua aurkeztuko dute ikasleek bihar, zapatua, Arrasateko Amaia Antzokian. 6 eta 16 urte bitarteko ikasleak izango dira dantza eta antzerkia uztartuko dituen ekitaldiaren protagonista, guraso eta irakasleen laguntzarekin. Goizeko 11:30ean hasiko da aurkezpena. Arizmendi ikastolaren proiektuak ume eta gazteen garapen integrala bilatzen du, pertsonalitatearen garapenerako hain erabakigarria den bizitzako etapa horretan. Arizmendik 3.000 ikasle inguru ditu 12 eskolagunetan banatuta, eta urtarrilaren 28ra arte ate irekien jardunaldiak egingo dituztela jakinarazi dute.

### Asteburuko ekaitzak argindar eteteak eragin zituen Debagoieneko herrietan

Asteburuko ekaitzaren ondorioak nabarmenak izan ziren ibarrean. Debagoieneko mendi tontorrak elurtuta esnatu ziren astelehenean, baina trumoi eta tximisten alde txarra ere jasan behar izan zuen hainbat debagoiendarrek. Bergarako zenbait auzotan, Arrasaten, Aretxabalean eta Eskoriatzan argindarra eten zen. Oñatin astelehen goizean joan zen argindarra. Horren harira, telebista seinaleak ere igarri du ekaitzaren astindua, eta ibarreko hainbat herritan ez zen telebista ikusterik izan.

### Baserrian erabilitako plastikoak datorren martitzenean jasoko dituzte ibarrean

Baserrin inguruetan sortzen den plastiko ateratzeko hurrengo eguna urtarrilaren 27a, martitzena, izango da. Debagoieneko Mendi Nekazaritza Elkartea arduratzen da zerbitzu horretaz, eta zein plastiko mota bota daitekeen zehaztu dute: siloa estaltzekoa, belar bole-takoa, negutegietan eta ortuan lurra tapatzeko eta negutegiko plastiko zuria. Sokarrik, berriz, ez dute jasoko. Arratsaldean atera beharko dira plastikoak, hurrengo egunean jasotzeko.

**Kirola**  
Aste bukaeran Debagoienean gertatu den guzti-guztiaren berri Asteleheneko Goienkarian.

**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

✉ Nafarroa etorbidea 2  
20500 ARRASATE

☎ 902 36 38 51

📠 943 79 22 93

✉ astelehenekoa@goiena.com  
www.goiena.net

## BATZOKIA ARRASATEN

- Eguneko menuak.  
Baita zapatuetan ere!
- Karta
- Plater konbinatuak
- Ogitaratekoak
- Brabak
- Olagarroa galiziar erara

Iturriotz 41  
Tel.: 943 79 85 72



## PREVISORA BILBAINA ASEGURUAK

Osasun zerbitzuen eskaintza zabalago duen  
HERIOTZA-ASEGURU bakarra.

**Hitzartutako mediku, dentista,  
optika-kate eta bainuetxeetan  
DESKONTUAK**

Zerrajera kalea 4, 1.  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 22 19

## HARPIDETZA TXARTELA

Izendetarak: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_ Tel.: \_\_\_\_\_

Herria: \_\_\_\_\_ Kode postala: \_\_\_\_\_

Posta elektronikoa: \_\_\_\_\_

Non jaso nahi duzu? Etxean  Kioskoan

Beste nonbait\*  \_\_\_\_\_

Harpidedunaren kontu korrantea (20 zenbaki):

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

**Urteko harpidetza: 25 € / 40 ale urtean**

\*Herriz kanpoko banaketa kasuz-kasu aztertuko da.

## ANTZUOLA

**Espainiako gerraren gaineko erakusketa jarri dute Olaran etxean**

Oraingo asteburuan eta hurrengoan, Espainiako gerraren gaineko erakusketa bikoitza izango dugu: Sabino Arana kultur elkargoaren *¡Nunca mas! Gerra irudiak 1936-1939* erakusketa, batetik, eta Deba goieneko fusilatuen senide eta lagunak taldearen *Hazia erein zenutenoi* erakusketa, bestetik. Antzuolako materiala ere jarriko dute ikusgai. 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:00etara egongo da zabalik. Etzi, domeka, Joseba Tapiaren kontzertua izango dugu, 19:00etan, eskolako aretoan. /A.I.



GORKA ETXABE

## ARRASATE

**Hasi dituzte Garibaiko lur azpiko aparkalekua egiteko lanak**

Eraldaketa handia ikusiko dugu datozen bi urteotan Garibai inguruan. Izan ere, oraingo astean hasi dituzte lur azpiko aparkalekua egiteko hasierako lanak. 427 aparkaleku egin gura ditu Udalak Arrasateko erdialdean. Hori egiteko, besteak beste, zuhaitzak botako dituzte, jarlekuak kendu eta gorde, eta betidanik ezagutu izan dugun kioskoa lekuz aldatuko dute. Aurreikuspenen arabera, 18 hilabetez ibiliko dira lanak egiten; hala, 2005eko udarako aparkalekua erabiltzeko moduan egongo dela uste dute. Era berean, lanak amaitzen dituztenean, Garibai ingurua oinezkoendako ipintzea da asmoa. Lanok egin bitartean, Udalak behin-behineko aparkalekua egokituko du Arrasate Musikalen ondoan, eta Laubideko parking-ak prezioak berezia izango du gauez. /U.M.

## ARAMAIO

**Datozen bi hilabeteotan zinema izango da barikuetan**

Abenduko esperientziaren ostean, herriko zinemazaleen elkarteak filmak presatu ditu otsailerako eta martxorako. Barikuetan izango dira emanaldiak, 22:30ean.

## FILM SARIDUNAK

Gogoratu beharra dago sariren bat jaso duten filmak ematea dela helburua. Hala, aukeratu duten aurrenekoa Ron Howard zuzendari estatubatuarren *Una mente maravillosa (A beautiful mind)* da. Otsailaren 13an emango dute. Euro bat kobratuko dute sarrera. /U.M.

## ELGETA

**Uste baino janari gehiago jaso dute errefuxiatu sahararrendako**

Saharar Errepublikaren Demokratikoaren Lagunen Elkartearen deiak erantzun ona izan du Elgetan. Izan ere, *Gosez hil nahi gaituzte* lelopean antolatutako kanpainaren baitan, espero zuten baino janari gehiago batu dute. Guztira, 20 kilo azukre, 45 kilo arroz, 40 kilo lekale, 15 kilo pasta, 20 litro olio eta 15 kilo atun (kontserban) jaso dute. Bestalde, Udalak, kanpainarekin bat eginez, dirulaguntza emateko proposamena egin du, baina Gobernu batzordean onartu behar dute. /I.A.

## OÑATI

**Kalegoieneko lanak hasi dituzte, eta kiroldegikoak udan hasiko dituzte**

Oraingo astean bertan hasi dira makina hondeatzaileak Kalegoieneko inguruan lanean.

Bi lan garrantzitsu egingo dituzte hantxe: etxebizitzak eta aparkalekuak. Guztira, 85 etxebizitza egingo dituzte; horietatik 16 babestutako etxebizitzak izango dira. Lurpeko aparkaleku publikoak ere egingo dituzte, 180 automobil aparkatzeko tokiarekin.

Etxebizitza eta aparkalekuekin batera, plaza bat ere egingo dute, umeendako jolastokiarekin eta berdeguneekin.

## KIROLDEGIAN UDAN HASIKO DIRA

Zubikoa kiroldegia handitzeko lanak, berriz, udan hasi gura ditu Udalak. 3,6 milioi euroko aurrekontua eta 18 hilabeteko epea dute lan horiek egiteko. Udalararen aurreikuspenen arabera, 2006an inauguratzeko gertu egongo da kiroldegi berria.

Elkarrekin lotutako hiru eraikin izango ditu

Zubikoa berriak. Gaur egungo eraikina gorde egingo dute eta lotura zuzena izango du berriarekin. Bien erdian taberna egongo da, eta sarrera propioa izango du.

Eraikin berriak kantxa nagusi bat, hiru kantxa txiki, rokodromoa... izango ditu. Beste eraikin berriak, berriz, aldagelak, takilak, sauna eta gimnasioa izango ditu, besteak beste.

Luis Etxegarai eta Itziar Zelaia arkitektoek egin zuten kiroldegia handitzeko proiektua; lanak, berriz, oraindik ez ditu Udalak lehiaketara atera. /LEIRE KORTABARRIA / AINTZANE IRIZAR

## Zertzelada

**Zubikoa kiroldegia handitzeko, 3,6 milioi euroko aurrekontua eta 18 hilabeteko epea du Udalak. Seguruena, udan hasiko dituzte lanak.**

## BERGARA

**Martxoan hasiko dituzte Agorrosingo kirolgune berria eraikitze lanak**

Hainbat atzerapenen ondoren -2002. urteko udazkenean ziren hastekoak-, azkenean badirudi martxoan hasiko direla Agorrosingo kirolgune berria eraikitzen. Hiru fasetan egingo dituzte lanak, eta lehenengo fasea esleitzeko baldintzak prestatzen dihardutela esan dute Udal iturriek.

Lehenengo fase horretan, besteak beste, hauxe egingo dute: bi igerileku estali (21x25 m eta 20x5,5 m), aldagelak, gimnasioa, squasherrako pilotalekua, haurtzaindegia eta kafetegi-jatetxea. Fase horren aurrekontua 6.915.900 eurokoa da eta hiru faseena, berriz, 10.704.000 euro ingurukoa. /M.B.



ARTXIBOA

2002an itxi zuten igerilekua obrak hasteko, nahiz eta atzeratu egin diren.

## ARETXABALETA

**Ekitaldiak antolatu dituzte, Kepa Urrak 12 urte beteko dituelako kartzelan**

Kepa Urra euskal preso kartzelan dago 1992az gero. Hilaren 29an egingo ditu, hain zuzen, 12 urte. Azken urteotan Coruñaiko Curtisen dago. Hori horrela, hainbat ekitaldi antolatu ditu Askatasunak. Eguenean, hilak 29, kale agerraldia egingo dute, 18:30ean, eta horren ostean Keparen urtebetetze egunerako argazkia aterako dute.

Hilaren 31n (zapatua), ostera, eskualdeko manifestazioa egingo dute, 18:30ean. Gauerako, bestalde, bertsoariak girotutako afaria antolatu dute Taberna Berri jatetxean. /M.A.

## ESKORRIATZA

**Aste honetan hasi dira Torrebaso industrialdeko hotela eraikitzen**

Oso hotel modernoa eta eroso izango da. 98 gela izango ditu eta puntako teknologia zerbitzuak eskainiko ditu. Adibidez, bideo konferentziak egiteko areto bat izango du. Baita bilerak, hitzaldiak, bazkariak eta bestelako hitzorduek egiteko gelak ere. Industrialdeko arduradunen ustetan, datorren udan zabalduko dute, eta bertako enpresetako langile eta bezeroei eman nahi die zerbitzua.

Torrebaso pasealekua bera datorren martxorako guztiz egokituta egongo dela aurreratu dute./O.E.

## LEINTZ GATZAGA

**Gatzagarrek Gatz Museoa ikus zezaten, ate irekien jardunaldia izan zen**

Joan den zapatuan, hilak 17, gatzagarrek Gatz Museoa barru-barrutik ezagutzeko aukera izan zuten. Museoa bisitatu eta gero bilera egin zuten herritarrek museoko arduradunekin. Museoren etorkizuna finkatu gura dute herritarrek. "Guztion ondarea da museoa, eta guztion artean ondatu hori aberastea dugu helburu. Herritarren laguntza jaso gura dugu; nor bere neurrian eman ahal duen laguntza", esan digute museo arduradunek. Datozen asteotan beste bilera bat egingo dute. /A.G.

**P**olitikan ibilbide luzea egin du Arrasaten jaio arren bere burua bergarartzat duen 71 urteko gizon honek. Bergarako alkate izandakoa, Espainiako senatuan euskaldunon ordezkari jardun zuen, eta azken urteak Bruselan eman ditu, Euskadiko ordezkari izan. Erretiroa hartu ostean, Imanol Bolinagak urte hauetan guztietan egindako lanaz egin digu berba.

IRATI AGIRREAZALDEGI

#### Zure ibilbide politikoa luzea izan da.

Bergarako alkate izan nintzen eta horrekin batera Gipuzkoako batzarkidea eta EUDELeko lehendakariordea. Hurrengo agintaldian, Bergarako Udaleko zinegotzi kargua hartu nuen, eta Turismo sailburuorde ere jardun nuen. Handik, Madrileren joan nintzen, senatura, Euskadiko ordezkari modura. Europako Kontseiluko parlamentari ere izan nintzen, eta baita UEO (Mendebaleko Europako Batasuna) delakoan kide ere. Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluko lehendakari postuan ere egon nintzen.

#### Azken boladan Euskadiko ordezkari izan zara Bruselan. Zein izan da zure eginkizuna bertan?


Europako Batasunean egunetik egunera sortzen diren lege, arau eta aholkuen jarraipena egin, informazioa jaso, prestatu eta hona, erakundeetara, enpresaburuei, interesa duten elkarteei... bidaltzea izan da gure zeregina. Horrez gain, Europako Batasuneko ekintza eta erabakiei aurre hartzen saiatu gara, Europako jokoan sartu eta azken erabakia gure aldekoa izan zedin. Bestalde, bertako komisario, kabineteetako zuzendari, funtzionario eta hango enbaxadekin harremanak sakontzeko ahalegina egin dugu. Hemendik hara joandako ordezkarietara ere laguntza eman izan diegu, bai gure bulegoak euren eskuetan jarriz eta baita harremanak erraztuz ere.

#### Bruselako bulegoak behar duen adina estatus diplomatiko ez duela entzun diguzu. Zer dela eta?

Izatez Espainiako enbaxadak dauka estatus diplomatikoa. Gure ustez, guk eta han dauden beste erkidego batzuetako ordezkariak ere izan beharko lukete estatus diplomatikoa. Espainiako Kanpo Harremanetako Ministerioaren mende egon beharko genuke, eta hortik jaso status diplomatikoa, baina espainiarrak ez daude prest horretarako. Hori lortzeko bideak erraztuko lizkiguke, baina ezinezkoa da. Hala ere, Euskadiko ordezkariak badu errekonozimendua Bruselan, diplomatiko eta enpresaburuen artean.

#### Erretiroa hartu duzun honetan, hasieran zenituen helburuak bete dituzula uste duzu?

Lanean jarraitzeko esan zidaten behin eta berriz, baina etapa hau amaitzeko garaia zela erabaki nuen. Lan teknikoan ondo egin dugu, eta horretarako teknikari egokiak izan ditut inguruan. Bestalde, politikoki ate asko itxita genituen eta ate horiek zabaltzea eta harremanak ondo bideratzea zen gure lana. Hori bete dudala iruditzen zait, eta konforme itzuli naiz hiru urteren ostean. Gainera, Ibarretxe lehendakariak zoriondu egin nau egindako lanarengatik.



## Imanol Bolinaga

EUSKADIKO ORDEZKARI OHIA BRUSELAN

# “Euskadiko ordezkariak badu errekonozimendua Bruselan, diplomatikoen eta enpresaburuen artean”

### SENATUA

“Euskaldunon presentzia senatuan txikia izan arren garrantzitsua da, gure errealitatearen berri emateko bada ere, askok ez baitute Euskal Herriaren irudi garbirik”

### MARTXOKO HAUTESKUNDEAK

“Madrilen, tamalez, PPK irabaziko ditu hauteskundeak, eta gehiengo absolutua eskuratzen ez badu Jainkoari edo boto emaleei eskerrak eman beharko dizkiegu”

**Euskal Herriari Europatik begiratu diozu azken urteotan. Orain, zein uste duzu dela Euskal Herriak Europan jokatu beharreko papera?**

Euskal Herriak Europan izango duen etorkizuna eta bertan bete beharreko lanak ez dira errazak izango. Europa eraikitzen estatuak ari dira, eta horrek kezka handiak sortzen ditu gu bezala menderatuak dauden herrietan. Hango jendeak ulertzen gaitu, eta arrazoia ere ematen digute, bai-

na era berean esaten digute zenbait gai Espainiako estatuaren barnean erabaki beharrekoak direla eta gure artean konpontzea lortzen dugunean eraman ahal izango dugula Europan, eta orduan bakkari onartu ahal izango dutela. Hango bileretan, guri dagozkigun gaiak lantzen direnean, bertan izatea eta gure ahotsa entzunaraztea guretzat asko izango litzateke, baina espainiarrak ez daude horretarako prest. Zer esanik ez estatu txiki baina

independente izango bagina. Politikak gauzak asko nahastu ditu Europan, eta mundu zabalean eta euskaldunok gure izaera azaltzen dugun neurrian, denok gatazkaren barruan sartzen gaituzte eta azalpenak ematera behartuta egoten gara. Egin ditugu hainbat ahalegin lehendakaria eta zenbait sailburu hara eramanez eta hemengo egoera azalduz, baina baliteke nahikoa ez izatea, gure aurka dagoen pentsaera global hori kontuan hartuta.

#### Bruselara joan aurretik senatuan kargua izan zenuen. Aurki, martxoan izango dira Espainiako hauteskundeak. Nola ikusten dituzu?

Madrilen, tamalez, PPK irabaziko ditu hauteskundeak, eta gehiengo absolutua eskuratzen ez badu Jainkoari edo boto emaleei eskerrak eman beharko dizkiegu. PSOEn ez diot aukera handirik ikusten, sakabanaketa dela eta ez baitute itxurazko egitasmorik azaltzen. Euskadin euskaltzale eta abertzaleok irabaziko dugu. Batasuna zoritxarrez lege kanpo dago eta hori onartezina da. Denok adostasun batera iristea ona litzateke Espainiaren aurrean indarra egiteko. Teorikoki horrela da, baina praktikoki baldintzak ez daude horretara iristeko moduan.

#### Euskaldunek zein toki betetzen dute senatuan?

Gure presentzia txikia izan arren garrantzitsua da, gure errealitatearen irudia emateko bada ere, askok ez baitute Euskal Herriaren irudi garbirik. Beste kontu bat da presentzia horrek gero fruiturik ematen duen edo ez. Baina euskaldunon ideiak eta asmoak bertan azalduz gero, jaso geratzen da.

#### Zein batzordetan jardun zenuen?

Kanpo Harremanetakoan, Hezkuntza eta Kulturakoan, Defentsakoan... Hainbat pentsatzen eta lan ere egin behar izaten ziren, eta horietan ere hartu nuen parte. Gogoan dut nola heriotza-zigorren aurkako mozio bat aurkeztu nuen. Azken erabakia nire aldekoa izan zen.

#### EAJk proposatu zintuen senaturako. Azkenaldian alderdian gertatu diren aldaketek buruz zein iritzi duzu?

Arzalluzek pentsatu du etapa bat bete duela eta beste batzuei laga behar izaten tokia, eta horregatik utzi du kargua. Ondoren, Egibar edo Imaz hautatu izan da eztabaidarik alderdi barruan, baina oro har hautaketa nola egin dugun demokratikoki eredugarria dela iruditzen zait. Imazek bere lana ondo beteko duela uste dut, akademikoki ongi gertatuta dagoelako, kanpo harremanetarako gaitasuna duena, europarlamentaria izandakoa...


#### Turismo kontseilari izan zinen partetik, zer du Debagoienak turistei eskaintzeko?

Masa turismoa ezin dugu erakarri, eta hori kaltegarria litzateke, baina hemen badira kanpotarrak erakartzeko arrazoiak. Batetik, jendea bera, zabalak gara eta badakigu kanpokoak onartzen. Inguuruko mendiak ikusgarriak dira eta herriak ere denetarikoa daude, bakoitza bere ezaugarriekin. Bergara, esaterako, egokia da turismo kulturalerako.

#### Bergarako alkate izan zinen. Ezer geratu zitzaizun egin nahi eta egin gabe?

Nahiak ez dira inoiz bukatzen, baina horiek betetzeko asmoak ongi finkatzea, dirua eta denbora dira beharrezkoak. Nik lau urte eman nituen alkatetzan eta asmorik sendoenak bete nituen. Besteak beste, zaharren egoitza eta Labegarietako kiroldegia. Azken horrek Europako oniritzia jaso zuen, pabiloi industrial bat zaharberritu baikenuen. Matxiategiko urbanizazioa ere garai hartakoa da; Agarreko garaiak ere orduan konpondu genuen eta Urkulutik urak ekartzeko lanak ere ni joan nintzenerako bideratuta laga nituen.

Zabalik



GURUTZE  
ARIZNABARRETA

'E'-dozer

**E**-330, E-270, E-300, E-401... eee!!! ez naiz ontzia urperatu nahian ari eehh!!! Etxeko armairua "E"ak jota dagoela konturatu naiz. Konturatu zarete zenbat "E"k egiten duten igeri armairuko gure latetan?

**Kontxo!** Ez naiz ni osagaiak zorrotz begiratzaren dituen horietakoa, baina kasualitatez, gaur olibatxo batzuekin batera azidotzaileak, antioxidatzaileak eta egonkortzaileak irentsi ditudala ohartu naiz. Hainbeste E"tzaile" ezin dira onak izan. Gure buruari diziplina apur bat ezarri behar-ko genioke, tematu gabe eta inuzentekieratan erori gabe, etiketei erreparatzen hasi.

Zeri begiratzen diogu erosketak egiterako orduan? Prezioari, itxurari ala kalitateari? Sarriegi begiek galtzen gaituzte. Tomateak, adibidez, makro apaletan, ilaran lerratuta, denak perfektuak, 100kixak denak igual-igualak ikusi eta tentazioan erortzen gara.

Eta? Tomatearena izena baino ez daukate. Zapore bila igual aldame-neko denda txikiko Tiburtzirengana joan beharko dugu.

Argi dago, begiek galdu egiten gaituzte. Begiek eta 2x1ek. Bi baten prezioan, dena euro baten truke ala dena erdi prezioan.

Tiburtzik ez dauka prezio horiekin lehian aritzerik. Denda txikietan gutxitan ibiltzen gara, lau pauso emateko baino alferragoak garelako. Kotxez denda kate handi horietako batera joatea nahiago izaten dugu, benetan behar ez ditugun elikagaiez karroa gainezka betetzea eta produktuen zerrenda amaiezina garestitxo ordaintzea.

Lagunok, diziplina apur baten beharrean gaude. Erosketa zerrenda zehatzak egiten hasi, etiketak begiratzen ikasi eta sasoian sasoiko produktu freskoak kontsumitzen ahalegindu. Egon hadi lo eta jango duk/n E-dozer!

Gutunak

Elgetako EAJ-EAri

**H**orrenbeste egitasmo egin behar ditugun agintaldi honetan, adostasunak topatzea da Elgetako lau alderdiok (EAJ, EA, Auzolanian eta Aralar) egin behar duguna. Prentsaren bitartez Elgetako Aralarreko lantaldea iraindu eta mehatxatzeak ez du horretan batere laguntzen. Bigarren aldiz esan gura dugu ez ditugula irainak eta mehatxuak prentsaz erantzungo.

Aurreko barikuan, urtarrilak 16, batzar batera deituko gintuztela esan ziguten arren, ez dugu EAJ-EAren deirik jaso.

Arazaok, egotekotan, aurrez aurre eta elkarrizketaren bitartez konpontzea gura dugu. Beste gutun bat idatzi beharra ez izatea eskertuko genuke.

ELGETAKO ARALARREKO LANTALDEA  
Elgeta

Mikel Irizarri erantzuna

**O**stiral ilunkaratan GOIENKARIA hartu eta zure artikulua irakurtzen dut lehendabizi. Ohitura hori hartua dut.

Joan den ostiralean, baina, ez zitzaidan batere gustatu kaleratu zenuen artikulua. Errealitatearen irakurketa partzial eta interesatua egiten duzula iruditzen zait. Gainera, a zelako garaian datorren!

Debagoiendarrok badugu harro egoteko makina bat arrazoi, eta horietako bat izan daiteke aukeran dugun hezkuntza eskaintza aberatsa. Baina laudorio hori ez dagokio Arizmendi bakarrik. Debagoienak badu Euskal Herrian erreferente den hezkuntza eskaintza publikoa ere, eta ez ditut Txantxiku Ikastola edo Telesforo Aranzadi ere ahaztu nahi. Hala ere, zuk marraztutako puzzleak ardura dit gehien. Pentsamendu bakarra ekarri dit gogora, Mikel. Gizajoak gure seme-alabak bizitza osoa Debagoienara mugatzen badute! Aukeratu beharrik ez dute izango zuk hain garbi ikusten duzun ibilbidearekin: Arizmendi, MU, MCC. Galdera bat, MCCn lan egitea ukatuko ote zaie ziklo hori era horretan betetzen ez dutenei?

Baina hasieran aipatu bezala, artikulua oso une interesatuan argitaratu duzula uste dut. Idatzia guztiz ateporala da, beraz, kasualitatez argitaratu ote da ikastetxee-

tako matrikulazio garaia hastear dagoenean? Ondotxo dakizu kaleratutako horrek zelako eragina izan dezakeen. Bukatzeko, esan, gaiztoak eta gorabeherez betetakoak izan diren Arizmendi eta Eskola Publikoaren arteko harremanak hobetze aldera, mesede gutxi egiten dutela horrelako idatziek. Debagoiendarrok benetan harro egongo gara, hezkuntzaren mesedetan aukera desberdinen elkarlana sumatzen hasten garenean. Orduan, bai!

NURIA AGIRRE  
Aretxabaleta

Ez gaude denok!

**M**akina bat aldiz entzun, irakurri, idatzi eta oihukatu dugun leloa dugu hau: *Ez gaude denok!* Normalean, arazo eta tesuinguru zehatz batean erabili badugu ere, gure presoen ausentzia salatzeke asmoz, hain zuzen, gaurko honetan, beste kolektibo bat ahaztua izan delako idazten dugu.

Denok dakigu ahaztuta izatea zein mingarria den, bai lagunarte eta maitasun kontuetan, zein bestelako asuntoetan ere. Are eta puñeteroago oraindik, ahazten zaitunak kontzienteki eta estrategikoki jokatzeko duenean.

Horixe izan da Irizar jaunak *Arizmendi* izenburupean idatzitako artikuluan egin duena gurekin. Arbola miresteagatik basoa ikusi ez. Hobe esateko, ikusi gura ez.

Badirudi Arizmendi ez garenok ez dugula ibarrean kabidarik; ez garelara ezer, edo, okerragoa dena, ikusezinak garelara. Itxura denez, Arizmendin ikasten ez duenak ez du etorkizunik gure ibarrean; ez aukerarik Mondragon Unibertsitatean ikasteko; ez eta MCCko partaide izateko.

Erretorika eskasa erabili duena, silogismo faltsuaz baliatutakoa. Pentsamendu bakarra bultzatzaileen trazak antzematen dira erabilitako argudioetan.

Seguruenik, ibar honek estreinatuta berri duen Unibertsitateak, beste leku askotan ikasketak egindakoak izango ditu ikasle; bai Ataungo herri eskolan, baita Otxandioan ere. Gazte euskaldun, jator eta langile horiek izango dira Unibertsitate horri gatz emango dion osagaietariko bat; eta, duda barik, ongi etorriak izango ziren. Seguruenik, kooperatibetan lanean dihardutenen artean ere, izango direla beste eskola edo tailerretan ikasitakoak, eta denek izango dute zer eman eta zer esan.

Aniztasunak dakarren aberastasunean sinisten dugunok; eskola ibilbide lineal eta bakarra defendatzen ez dugunok; integratzaile, oztoporik gabe ulertzen dugunok, mila arrazoi direla medio, beste hezkuntza aukera bat egin dugu gure seme-alabentzat: aukera publikoa, hain zuzen ere, beste edozein aukera bezain duina dena.

Gu ere, Irizarrek aipatzen duen harrotasun horren parte gara; gu ere harro gaude ibarrean Unibertsitate dugulako, gu ere, harro gaude gure gurasoak kooperatibistak izan eta direlako. Harro gaude, baita ere, gure aukerak egin duen eta egiten ari den ekarpenarekin. Baina badirudi azken horrek ez duela ibarreko puzzlean lekurik, ez duela hezkuntza alorrean behar duen eraginkortasunik, gure piperrautsak ez duela behar besteko pikanterik.

Hauxe da gakoa, hauxe da baztertuaren bizipena. Horregatik, berriro ere esan beharrean gaude: *Ez gaude denok!*

KURTZEBARRIKO GURASO TALDE BAT  
Aretxabaleta


Mikel Irizarri zenbait zehaztapen

**A**zken GOIENKARIAN Mikel Irizarrek idatzitako zutabea irakurri eta gero, haren hitzek harridura besterik ez didate sortu. Artikulu horretan Debagoieneko Herri Eskola, Batxilergo eta DBH Institutua eta Lanbide Heziketa Ikastetxearekiko eta beste ikastetxe pribatu guztiekiko sentsibilitaterik eza nabaria da. Ez dut uste intentzioarekin egin dagoenik, baina bere iritzia arrasatearrek honekiko duten nahasmenaren ondorioa delakoan nago.

Eta ondorengo lerroetan nire harriduraren zergatia azaltzen saiatuko naiz. Artikuluaren ardatza Arizmendi, Mondragon Unibertsitatea eta Garaiak osatzen dute. Hori al da gure seme-alabek duten sekulako ibilbidea? Hiru proiektu hauei ez diet meriturik kendu nahi eta lana gogor egin dutela badakit ere. Baina Mikel Irizar ez al da konturatzen ibilbide hauetan ez dituela Arrasateko eta bailara osoko Eskola publikoak eta beste ikastetxe pribatuak kontuan hartu? Eta ikastetxe hauek egunero lanean gogor dabiltzala ibilbide honetan egoteko? Santo Tomas Lizoea aipatzen du konparazio moduan. Arizmendi ikastola beste ikas-

Olatz eta Patri

MIKEL ARROIABE





## Eztabaida

tetxe batzuen fusioa da eta Santo Tomas Lizeoa ez. Santo Tomas Lizeoa hutsune bat betetzeko sortu zen hezkuntza proiektua da. Ez daukate zerikusirik. Arizmendik lortu duen tamaina garrantzirik ez duela dio, baina aipamena egina dago.

Gustatuko litzaidake Debagoieneko Herri eskolak, DBH eta Batxilergo Institutuak, Lanbide Heziketako Ikastetxeak eta beste ikastetxe pribatuetara hurbiltzea bertako lana ezagutzeko. Goieskolak biltzen dituen ikastetxe guzti hauetatik ez al dira bada ikasleak joaten Mondragon Unibertsitate eta Euskal Herriko Unibertsitate ikasketak egitera?

Sentitzen dut, baina Arizmendiren artikulua konpartsa baten funtzioa betetzen duela uste dut eta Arizmendi ikastolaren propaganda hutsa besterik ez dela baieztatuko nuke. Goieskolak biltzen dituen Debagoieneko Herri Eskolak, DBH eta Batxilergo Ikastetxeak eta Lanbide Heziketako Ikastetxeak ez al dute errekonozimendu honetan egotea merezi? Eta errekonozimendu honetatik at uztea kasualitatea al da? Garai hauetan matrikulazio prozesua hastear dagoenean, beste ikastetxe hauei mesede egiten al zaie?

Artikuluak dio: "Arizmendi zen puzzle baten azken pieza". Zein puzzle da hori? Zeintzuk dira beste piezak? Eta azkeneko pieza, zergatik?

Artikuluak beste hau irakur daiteke: "Finean, Debagoienean jaiotzen denak aukera du kateatzeko lehen urratsak unibertsitatekoekin". Jakin dezala Mikelek gaur egun Debagoienean jaiotzen denak lehen urratsak (lehen bi urteak) ezin dituela eman Eskola Publikoan, baina bai Arizmendin edo Merzedeeetan ere. Zergatik? Nork bultzatu du egoera hau? Zergatik ez zaio Eskola Publikoari aukerarik ematen? Horretan zure puzzlea eta nirea berdinak dira. Baina pieza bat falta da eta pieza hori Debagoieneko (Arrasate, Bergara, Oñati, Aretxabaleta, Aramaio, Eskoriatza) Herri Eskoletan 0-3 urteko eskaintza publikoa da: gurasook beharra dugulako eta, gainera, Goieskolak biltzen dituen Herri Eskolen proiektua hanka-motz geratzen delako.

Artikuluak jarraitzen du: "Arizmendi sortu da MCCren baitan". MCCko enpresa gizonek Hezkuntza Sailak emandako dirua eta Arizmendik lortutako subentzio-mailekin erlaziorik ez dutela pentsatu nahi dut. Eta, are eta gehiago, Debagoienean Eskola Publikoekin dituzten oztupoekin MCCk zerikusia ez duela sinistu nahi dut.

Hala ere, Mikel Irizar animatzen dut Arrasate Herri Eskola, Arrasate-Aretxabaleta Institutua eta Debagoieneko gainontzeko hezkuntza ikastetxeen proiektuak ezagutzera eta horrela falta den puzzlearen pieza lortuko du. Orduan, eta bakarrik orduan, gure eta denon puzzle hau osatuta geldituko da eta ni ere harro egongo naiz puzzle hori ikustean.

Denok eskertuko dugu osatu gabe dagoen puzzle hori osatzen bada.

JOXEMIEL ARANZADI  
(ARRASATEKO HERRI ESKOLAKO  
GURASO ELKARTEAREN IZENEAN)  
Arrasate


Lastertasun Handiko Trenaren proiektua oraindik plana baino ez den arren, hauts asko harrotu ditu ibarrean. Proiektuaren defendatzaileak batetik, eta trenaren

aurkako borrokan dihardutenak bestetik. Euren arrazoiak azaltzen dituzte ibarretik igaroko den tren azkar horren gainean. Asteon, trenaren inguruan berbetan izan da

Arrasateko udaletxean Alvaro Amann, Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan sailburua. Izan da trenaren geltoki bat ibarrean ipintzeko eskatu dionik.

# Tren azkarrarendako ibarrean geltoki bat eskatu dute. Zer deritzozu?

*Garai batean desagertutako trena gogoratuz*



INAZIO LAKUNZA  
Debagoieneko  
Mankomunitateko  
presidentea

Trabak dira nagusi tren azkarraren proiektua aurrera ateratzeko orduan. Erakunde batzuek oztupoak ipintzen dituzte, baita zenbait jendek eta taldek ere. Baina hesi horiek gainditu, planak aurrera egin eta Lastertasun Handiko Trena gure ibarretik pasatuko bada, bertan geltoki bat izatea eskatzen dugu, dudarik gabe. Eskari hori gauzatu dadin gure ahalegina egingo dugu, gainera.

Geltoki hori Angiozarren ipintzea zen hasierako asmoa, eta horrek zaila parta bat baino gehiago eragin zuen. Guk beste hainbat aukera aztertu ostean, Antzuolan kokatzea ere posible izan litekeela iritzi dugu. Izan ere, autobidea bertatik pasatuta auto eta kamioiak geltokitik gertuago egongo liriateke, eta horrek pertsonen zein bestelako gaien garraioa erraztuko luke.

Trena azkar pasako litzateke, bai, gure ibarretik. Baina gelditzeko aukera emanez gero, debagoiendarrondako onuragarria izango litzateke. Batera eta bestera bidaiatuko genuke modu azkarrean eta horrek hemengo errepideetan dagoen auto eta kamioien gainkarga arinduko luke.

Errepide gehiago eraikitzea ia ezinezkoa da "Gruyere" gazta dirudien zulatutako inguru honetan, eta itsasorik ez, bada, beste irtenbide bat bilatu behar, trena, alegia. Izan ere, Frantziatik hona itsaso bidez ekarriko dituzten produktuak, lehengaiak, makinak... euren helmugara iristeko nonbaitetik eraman behar dira eta auto eta kamioiek bideak kolapsatu egiten dituzte.

Garai batean, trena kendu zenean, asko galdu zuen ibarrrak eta orain atzera buelta egiteko ordua dela uste dugu. Atzera buelta, bai, trenera, baina aurrera begira, azkar. Lastertasun Handiko Trena, beraz, garai batean hemendik alde egin zuen tren zaharraren anaia modernoak litzateke.

Honela, bada, gure lurretatik tren azkarra pasatzen bakarrik ez dugu ikusiko, edo hori da behintzat gure nahia. Ibarrean geratzea, debagoiendarrak hartzea eta batera eta bestera ziztu bizian eramatea. Bide batez, errepideetan hainbeste automobil eta kamioi ez ibiltzea eta garai bateko trena berreskuratzea era modernoagoan.

**"Geltokia Angiozarren ipintzea zen asmoa, baina Antzuola ere kokaleku egokia izan daiteke"**

*Tren azkarra behar ez bada, zertarako geltokia?*



JESUS MARI GARITANO  
Bergara Aurrera  
plataformakoa

Lastertasun Handiko Trenaren aurka nago, dudarik gabe. Izan ere, gure lur maite honetan neurri horretako beste azpiegitura erraldoi bat ez da jasangarria. Gainera, proiektuaren inguruan ez da eztabaidarik egon, inposaketaz ezarri nahi dituden plan-gintza da, eta aurrez ikusi beharko litzateke zertarako behar dugun. Bada premia trenbide sarea konpontzeko, baina asmo hau bazterrerara lagatzen da garapenaren izenean.

Maila honetako azpiegitura batek ezaugarri zehatzak izan behar ditu. Hala nola, zati zuzenak, erradio handiko bihurtuneak... eta gure herriaren orografia ezagututa, tunel, bide zubi, ezponda eta lubakiak baino ez zaizkigu geratuko, eta hori gutxi balitz goi tentsioko linea elektriko berria. Gainera herriaren trenbideak 65 metroko zabalera izango luke eta nekazari lurretan 100 metrokoa. Beraz, gure lurra autopista batek moduan txikituko litzateke.

Nekazari guneak, basoak, sistema hidrologikoa, landaretza eta fauna erabat kaltetuko litzateke. Gainera, hain abiadura azkarra lortzeko kontsumo elektriko izugarria behar da eta denok dakigu horrek kutsadura handituko lukeela. Ekonomikoki ere, datozen belaunaldiendako sekulako hipoteka izango litzateke. Amann Garraio sailburuak esan zuen: "Ingurumenari egindako kaltea dramatikoak izango da".

Bergaran, Angiozarko bailara zeharo txikituko du. Plazatik eta Azkuretatik gertu hiru tunel egongo liriateke, eta ondorioz, ikaragarritzko zarata entzungo litzateke. Udalaitez ere hainbat lekutatik zulatuko dute.

Hori guztia hiriburutik hiriburura azkarrago joateko, hauen garapena handituz eta herri txikiak kaltetan. Beraz, gure apustua oraingo sarea konpondu eta zerbitzu publikoa hobetzea da.

Ulertezina da zenbait alderdik eta presio taldek ibarrean tren azkarrarendako geltoki bat egiteko eskatzea. Izan ere, trenak hiriburuen arteko distantzian 250-280 km/h-ko lastertasuna behar du eta erdian geltoki bat egingo balitz abiadura jaitziko litzateke, eta dioten bezain azkar ez litzateke joango trena.

**"Garapenaren izenean ibarra txikituko dute, herri txikiak eta nekazari guneak kaltetuz"**

HURRENGO EZTABAIDAGAI

Iritzia emateko: [goienkaria@goiena.com](mailto:goienkaria@goiena.com)

*Abertzaleak bat eginda aurkeztu beharko liriateke hauteskundeetan?*

**Goienkaria**  
DEBAGOIENeko ASTEKARIA

ZUZENDARIA  
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA  
Edorta Mendietza,  
Miguel Angel Elkorobereibar,  
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA  
Agurtzane Gaintzarain,  
Iratxe Bengoa, Arantazu Arana

SAILETAKO ARDURADUNAK  
Iñaki Iturbe (Diseinua)  
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA  
Mireia Larrañaga, Natali Martínez,  
Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín,  
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano

PRODUKZIOA  
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA  
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA  
Marta Leturia

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak  
LEHENDAKARIA  
Estepan Plazaola  
ZUZENDARI NAGUSIA  
Iñazio Arregi

Rachael Olabarria eta Larraitx Kortabarria | FUTBOLEKO EUSKAL SELEKZIOKO JOKALARIAK

# Debagoienetik euskal selekziora

IRATI AGIRREAZALDEGI

**F**utbolariak dira Rachael Olabarria bergararra eta Larraitx Kortabarria arrasatearra. Eta ez nolanhiko jokalaria. Txikitatik futboleant hasi eta futbolaren gailurrera iritsi dira. Euskal selekzioan jokatzeko dute; emakumeek futboleant egiten badakitela erakutsi dute.

Txiki-txikitatik baloia izan dute oinetan Rachael Olabarriak eta Larraitx Kortabarriak. Nork bere herrian jokatu ostean, Eibarrera bideratu zituen baloia. Larraitzek hango Eibartarrak taldean jokatzeko du orain; eta Rachaelek, berriz, Oiartzun du egungo taldea. "Eibarrera 14 urterekin joan nintzen; gaztea izan eta gutxi jokatu arren, ekipo oso ona zen, eta, asko ikasi nuenez, Eibarri asko zor diot. Baina etapa bat amaitu zela pentsatu nuen, eta euskal selekzioetik Oiartzunen ziharduten neska asko ezagutzen nituen, hara joatea erabaki nuen. Gainera, nire ezaugarriengatik-eta, euren zelaia niretzako aproposa iruditzen zitzaidan", esan digu Rachaelek.



Rachael Olabarria bergararra (eskuman) Oiartzungo taldean jokatzeko du gaur egun, eta lau urtez dihardu euskal selekzioarekin.

## SELEKZIOAK, MAILA ONA



Euren ibilbideak eta joko egoiak euskal selekzioan jokatzeko aukera eman die bi debagoiendar horiei. Laugarren urtez jardun du Rachaelek selekzioaren kamiseta berdea jantzita; Larraitzek, berriz, aurten izan du estreinako aldia. "Selekzioak esperientzia polita bizi izateko aukera eman dit. 30 laguni deitu zituen entrenamenduetarako, eta pixkanaka batzuk baztertera laga dituzte, azkenean 18 geratu arte. Katalunian jokatu dugu lehen fasea eta bi partidu irabazi ditugu. Orain, bigarren fasea falta da, eta gero, onenak ailegatuko dira finalera", esan digu Larraitzek.

Euskal selekzioan jokalaria onak direlako daude Rachael eta Larraitx, eta kideak ere maila berean daude. Rachaelek 25 urtez azpikoen taldean jokatu du, eta aurten selekzioarekin egindako lanarekin ez dago hain gustura: "Erkidegoen artean Euskadi beti potentzia handia izan da, jokalaria oso onak izan ditu, baina aurten lege berri bat ateratu dute, 25 urtetik gorako jokalariek selekzioan ezin dutela jardun dioena; beraz, euskal selekzioa hiru joka-

## Laga zaituen mutil-lagunaren ordenadorearekin ez dakizu zer egin?

Ba, inoiz baino errazago duzu.  
Deitu Mankomunitateko traste zaharren zerbitzura.

# 943 71 19 38



ETXEKO TRASTE ZAHARRAK JASOTZEKO ZERBITZUA

DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA

OTSAILTIK AURRERA, BILKETA EGUNAK ALDATUKO DIRA

lari garrantzitsu kanpoan geratu dira, eta hori asko igarri da. Euskadiko entrenatzaileak beti esan izan digu gogorik eta indarrik ez zaigula falta, baina heltzen da une bat non hori ez den nahikoa". Hala ere, biak bat datoz selekzioaren maila oso ona dela esatean: "Ez ditut gainontzeko selekzioak askorik ezagutzen, baina gurean oso maila ona dago. Gu ginen faboritoak eta, gainera, euskal selekzioa beti iritsi izan da finalera. Hala ere, Katalunian eta Madrilen futbol eskola asko daude, eta maila berdindu egin da. Kanarietakoak ere onak dira".



### RACHAEL OLABARRIA

- **Jaioterria:** Bergara
- **Adina:** 19 urte
- **Taldea:** Oiartzunen jokatzeko du
- **Postua:** Aurrelaria
- **Euskal selekzioarekin:** Laugarren urtez dihardu jokatzeko
- **Gustuko jokalaria:** Itziar Gurrutxaga eta Realeko edozein

#### ESPAINIAKO SELEKZIOA

Euskal selekzioarekin ez ezik, Espainiakoarekin ere jokatu da Rachael. "Iaz jokatu nuen, baina niretzat euskal selekzioa da helbururik nagusia; hortik

aurrerakoa esperientzia moduan hartzen dut. Jendea ezagutu nuen eta baita maila altuenean jokatu ere. Euskal selekzioarekin ez naiz horra iritsiko, baina sentimendu aldetik oso berezia da.

**"Euskal selekzioa familia baten modukoa da, lagun asko egin ditut"**  
RACHAEL OLABARRIA

**Nesken selekzioko jokalariek oso maila ona dute, eta askotan iritsi dira finalera**



### LARRAITZ KORTABARRIA

- **Jaioterria:** Arrasate
- **Adina:** 17 urte
- **Taldea:** Eibartarrak taldean ari da
- **Postua:** Eibarren aurrelaria; selekzioan erdi puntakoa
- **Euskal selekzioarekin:** Aurten jardun du estreinako aldiz
- **Gustuko jokalaria:** Mia Hamm eta Aimar (Valentziakoa)

Larraitzek ere gauza bera pentsatzen du: "Koloreak ez nituzke berdintut. Baina futbolean jokatzeko dudana heinean, ahalik eta maila altuenera iristea da nire nahia, hemen edo atzerrian".

**"Espainiako selekzioan, koloreak ez nituzke berdintut"**  
LARRAITZ KORTABARRIA

#### EMAKUMEAK ETA FUTBOLA

Futbola gizonen gauza bakarrik dela uste duena oker dabil. Bai, bederen, Ameriketako Estatu Batuei begira jarriko balitz. Izan ere, han, profesional modura jokatzeko dute neskek. Hemen ez dute dirurik irabazten futbolean egiteagatik, baina gauza dira futbola emakumeen kirola ere badela erakusteko.

Nesken futbolean jarrera matxistarik sumatzen den galduta, Rachael zera erantzun digu: "Gizartean dagoen neurrian, futbolean ere egongo da. Nik Oiartzunen jokatzeko dut eta betikoak joaten dira partidua ikustera, gustuko dutelako, eta sekula ez dut neskekiko mespretxuzko komentariorik entzun. Beharbada arbitro batzuek inoiz esan izan dute, "nesken partidu bat baino ez da", eta horrelako komentarioek min egin dezakete". Larraitzek ez du inguruan jarrera matxistarik ikusi: "Alderantziz, gero eta jende gehiago ari da zaletzen. Gure hautatzailea ere orain arte mutilekin ibili da eta gurekin hasi denean esan digu ez zela berak uste zuen modukoa, eta guk aurretik lan asko egin dugula. Lanerako beste modu eta disposizio bat dugula esan digu".

Neskek eta futbola, goi mailakoa gainera. Debagoienez, badira nesken futbol taldeak. Gogor entrenatuz, hemendik gutxira, Rachael Olabarriaren eta Larraitz Kortabarriaren baloiaren bideari segika ea selekzioa iristen diren.

## CG CONSULTORIO GINECOLOGICO

### Talde osoa emakumearen eskura:

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Ainhoa Larrea
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi
- Nerea Marin

Antzutasuna

Erditzeak

Antisorgailuak

Menopausia

Ekografiak (4D)

Titietako gaixotasunak


Kantzerraren diagnostiko goiztiarra

Hezur dentsitometria

Arrasateko kontsultategia:  
Zerkaosteta 17, behea  
Tel.: 943 79 20 18

  
Policlínica Gipuzkoa

Donostia. Tel.: 943 30 82 08  
Eibar. Tel.: 943 12 10 21  
Irun. Tel.: 943 61 78 88





## Añai erretegia

- Eskaintza** **Iardeaga 32 / ARAMAIO**  
945 44 51 01
- Bataio eta jaunartzeak
  - Kintadak
  - Karta
- Berezitasunak**
- Arraina eta okela parrillan
  - Etxeko postreak

Egubakoitzetan, zapatuetan eta domeketan zabalik



## Baster-Alde

- Eskaintza** **Galartza auzoa / ARETXABALETA**  
943 79 24 58
- Menua eta karta
  - Ezkontzak
  - Jangela: 160 lagunendako
  - Jaunartze eta bataioak
  - Kintadak
  - Terraza
  - Aparkalekua
- Astelehenetan itxita**



## Leku berri jatetxea

- Eskeintza** **Irimo barrena / ANTZUOLA**  
943 76 60 94
- Menua eta Karta
  - Bataioak eta jaunartzeak
  - Kintadak
- Berezitasunak**
- Bakailaua, kokotxa eta almejekin
  - Bildotsa erreta • Txuletak
  - Etxeko postreak
- Astelehen arratsaldetan itxita



## Pildain jatetxea

- Eskaintza** **Udala auzoa 14 / ARRASATE**  
943 79 11 65 / 943 77 18 40
- Eguneroko menua
  - Lagun arteko afariak
  - Bataio eta jaunartzeak
  - Ogitartekoak eta kazuelatxoak
- Berezitasunak**
- Bildotsa laban erreta
  - Babarrunak
  - Arraina
  - Etxean egindako ogia



## Torrekua jatetxea

- Eskaintza** **Ibargarai 37 / BERGARA**  
943 76 50 99
- Eguneroko menua
  - Karta
  - Kintadak
  - Bataio eta jaunartzeak
- Berezitasunak**
- Batik bat arraina
  - Itsaskia
  - Txuletak



## Unzueta jatetxea

- Eskaintza** **Zabola auzoa / ARAMAIO**  
945 44 50 95
- Eguneroko menua
  - Karta
  - Bataio eta jaunartzeak
  - Lagun afariak
- Berezitasunak**
- Parrilla: Okela eta arraina
  - Etxeko postreak
- Egunero zabalik**



## Zotz jatetxea

- Eskaintza** **Zubillaga auzoa 1 / OÑATI**  
943 78 35 45
- Eguneroko menua
  - Ogitartekoak
  - Hamarretakoak
- Berezitasunak**
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan
- Igandetan itxita**



## Zuhaizti jatetxea

- Eskaintza** **Espoloia, 6 / BERGARA**  
943 76 59 22
- Eguneroko menua, astebarruan
  - Pizzak, konbinatuak eta karta egubakoitz eta zapatu gauetan
- Berezitasunak**
- Etxeko postreak

# Goienka 2a

Eguneroko bitza / 2004ko urtarrilaren 23a

Kultura  
eta  
aisialdia



Urtarrilaren  
23tik 30era

## LOTSA BAZTERTU, GORPUTZA ASKATU

**D**ebagoiendarrok lotsa alde batera uzten eta dantza ikasten animatzen joan garen neurrian, ibarreko ikastaro eskaintza aberasten joan da. Gaur egungo dantzak, areto dantzak... izan ziren lehenengoak. Batez ere, herrietako euskara elkarteak hasi ziren horiek antolatzen. Oraindik aurrera jarraitzen dute horiek.

Pixkana-pixkana, beste doinu batzuen erritmora dantza egiten ikasi nahi izan dugu. Eta azken bi urteotan, doinu exotikoz bete zaigu ibarra: Brasildik, Burkina Fasotik, Kubatik... datozen dantzak ikas ditzakegu.

Antolatzaileek espero zuten baino erantzun hobea izan dute ikastaro gehienek, eta, hori ikusita, gehiago deitu edo hastapen mailatik sakontze mailara pasatzea erabaki dute. Estiloa zeuk esan, hortaz, eta neurriko ikastaroa aukeratu! /14

LEIRE KORTABARRIA



*Dantzara!*

## AISIALDIA/ DANTZA IKASTAROAK

## Lotsa alde batera, goazen dantzara!

ATZERRIKO ETA ARETOKO DANTZA IKASTAROAK KULTURA ESKAINTZA FINKO BIHURTU DIRA DEBAGOIENEAN

LEIRE KORTABARRIA

**D**antza egitea zaletasun kontua da, batik bat, eta horretarako grina ezin daiteke irakatsi; baina grina badutenok berau fin dezakete. Debagoiendarrok dantzarako lotsa galdu dugu, eta gero eta gehiago animatzen gara dantza ikastarootan izena ematen.

Sasoi batean, euskal dantza ikastaroak zeuden boladan. Orain, etxeok ikasita ditugulako-edo, kanpora begira jarri gara ibarrekook, beste hainbat dantza estilok erakarrita. Debagoieneko udal, euskara edo kultura elkarre zein bere kontura dabilten hainbat zalek antolatzen dituzte dantza ikastaroak, eta ibarrekoak gero eta harrera hobea egiten diegu ekimen horiei. Eskaintza batzuek beste batzuek baino erantzun hobea dute; baina harrera, oro har, oso ona da, eta noiz edo noiz, antolatzaileen aurreikuspenak gainditu egin ditu.

**ARETOKOAK ETA KARIBETARRAK**

Debagoiendarrok gustu aberatsa dugu dantzoari dagokienez: aretoko dantzak, bikoteka egitekoak, oso gustuko ditugu, adibidez. Horiek asetzeko, Arrasateko Ekin Emakumeak elkarrekin urte osoan barrena deitzen du bere aretoko dantza ikastaroa. Salsa, merengea eta Karibeko beste erritmo batzuk ere lantzen dituzte han.

Horien ondoan, berriago batzuk daude: capoeira brasildarra, edo Grezia eta Turkian sortutako sabel-dantza, berrienen artean. Horiek pare bat aldiz eman dituzte aurretik ibarrean, eta berriro deitu dituzte, aurrekoan arrakasta izan zutela-eta. Eta lehen aldiz eskaini dute dantza inprobisazio ikastaro bat ere.

**HELBURU NAGUSIA, ONDO PASATzea**

Ikastaro guztiok dituzte antzekotasunak. Leire Aperribai antolatzaileak dioskunez, "lehendik ere dantza egitea gustatzen zitzaien jendea etortzen da; hortaz, ez dute lotsarik izaten eta gustura ibiltzen dira". Lotsa galdu dugu... Baina emakumeok gizonekook baino gehiago, nahiz eta gizonekook ere hasi diren gehiago animatzen.

Ikastaro horiek helburu garrantzitsu bat betetzen dute: elkarrekin ondo pasatu eta aste-tentsioak askatzea. Aretxabaletako antolatzaile batek dioskun bezala, "astero elkarrekin dantza egitera elkartzen gara, eta oso giro polita sortzen da".

**ARETOKO DANTZAK, ORAINDIK GOGOKOENAK**

Tangoa, pasodoblea... Oro har, bikoteka egiteko aretoko dantzak ikastera ibarreko jende

asko joaten da. Arrasateko Ekin elkarrekin urtero antolatzen ditu hainbat ikastaro. Aretoko


dantzo gain, Karibeko dantzak ere irakasten ditu bertan Natalio Maiztegi oñatiarrak.

**DANTZA INPROBISAZIOA**

Lehenengoz egin dute dantza inprobisazio ikastaroa gurean. Jende gutxi parte hartu du, akaso oso kontzeptu berria delako. Koreografia elementuak erabilia, nork bere mugimendu estiloa garatzen laguntzen du ikastaroak.

**SABEL DANTZA**

Oñatiko Laixanek antolatu zuen sabel-dantza ikastaroa iaz, eta pentsa ezineko arrakasta izan zuen; orain, Arrasateko Gazte Zerbitzuak antolatu du. Ariketa egiteko ez ezik, hileroko edo haurdunaldiko minak arintzeko ona da.

**CAPOEIRA**

Jolasa, borroka diziplina eta dantza estiloa: horiek guztiak batzen ditu Brasilgo capoeirak. Ikastaroa Arrasateko gaztetxean ematen du ekainera arte Bornay brasildarrak; bigarren aldia du ikastaro honek Debagoienez.

**DANTZA AFRIKARRAK**

Aretxabaletako dantzazale batzuek antolatu dute, eta bigarren aldia du ikastaro honek. "Erritmo handiko dantzak dira, eta mugitzeko oso doinu egokiak dira", diosku Maier Etxebarria antolatzaileak.

## Izen eta deiturekin

**Salsa**

Hainbat dantza mota izendatzen ditu salsak, batik bat, Kuban sortuak. Nazioartean gehien hedatu den karibetar dantza mota da salsa.

**Boleroa**

Amodiozko istorio latzak kontatzen ditu boleroak. Hiru alboko mugimendu eta geldialdi bat dira ikasi beharreko pausoak.

**Mambo**

Kuban sortu zen, 50eko hamarkadan. Mugimendu labur eta garbiak, oin arinak, beso zurrunik eta energia handia behar dira.

**Merengea**

Erritmo oso biziak eta gerriko mugimendu bizkorrek bereizten dute. Pauso gutxi ditu, baina besoak eta gerriak asko mugitzen dira.

**Sevillanak**

Andaluziatik datorren dantza honek lau zati ditu, eta bikote baten gorteiatzea irudikatzen du. Ikasten zailenetako bat da.

**Polka**

Europar jatorria du, hainbat estilorekin: errusiarra, zelta, country-a... Oso alai eta ozarra da. Salto txikiak eginaz dantzatzen da.

**Tangoa**

Buenos Airesko kaleko giroan sortu zen. Erritmo apurtua du eta, ikasten zaila ez izan arren, menperatzen oso zaila da.

**Cha-cha-cha**

Bi mugimendu suabe eta hiru azkarrek osatzen dute. Oso aberatsa eta bariatua da. Gerriaren mugimendu sentzuala da bere ikurra.

**Rumba**

Kataluniakoa da ezagunena, nahiz eta beste hainbat estilo egin. Abiadura handiak bereizten du.

**Rock-and-rola**

AEBetan sortu zen. Bikotearengana apur bat alderatuta dantzatzen da, eta esku bakarrarekin helduta.

KRONIKA/ NAZIOARTEKO V. ORGANO ERROMANTIKOAREN ZIKLOA

NIREAUKERA

# Mozart-etik Schubert-era

MIGUEL BERNAL ORGANO JOTZAILEAK ETA JULIA RUIZ SOPRANOAK EMAN ZUTEN ZIKLOKO LEHEN KONTZERTUA

INIGO ALBERDI

Zapatuan hasi zen Nazioarte-ko V. Organo Erromantikoaren Zikloa. Jaialdi horrek ardatz bezala organo erromantikoa du, Bergarako, Azkoitiko eta Azpeitiko. Lehen emanaldia Bergarako San Pedro elizan izan zen; Miguel Bernal organo jotzaileak eta Julia Ruiz sopranoak eman zuten.

Bergaran eman zuten kontzertu horretan, sopranoaren ahotsa eta organoa bat eginik entzuteko aukera izan genuen. Programa mistoa aurkeztu zuten interpreteek; lan batzuk organo bakarrendako ziren eta besteak, aldiz, organo eta soprano duarendako.

**GUSTUA ETA NEURRIA**

Mozart-ekin ireki zuten kontzertua. Haren kantata bat eskaini zuten, *Die ihr des unerme Blichen Weltfalls* delakoa. Salzburg-eko maisuaren lan ezezagunetarikoa den horrek aria eta errezitatibak tartekatzen ditu. Julia Ruizek ahots handia daukala erakutsi zuen; bolumen handiko tinbrea dauka eta bere ahotsaren kolorean zarzuelako abeslarien ukitua nabari genezake, bibratoan, gehienbat. Eman zituen abesti guztietan gustua eta neurria erakutsi zituen. Organoarekiko sopranoaren kokapena ez zen, beharbada, egokiena izan. Hori dela eta, bere lanaren xehetasun batzuk galdu egin ziren, aipatu akustika arrazoiengatik. Ederrena, seguruenik, Rossiniren *Crucifixus aria* izan zen, soila eta



OLAIA MONDRAGON

Miguel Bernal organo jotzaileak bakarrik eskainitako lanetan nabaritu zen San Pedroko organo handiaren maila.

delikatua. Bernal-ek teklaturatik laguntzaile lana egoki bete zuen.

**'STOLTZ-FRERES'-AREN HANDITASUNA**


Bernalek bakarrik eskainitako lanetan gehiago nabaritu zen Bergarako *Stoltz-Freres* instrumentu handiaren maila. Mozarten *Fantasia* delakoan tinbreen progresioa logikoki planteatu zuen, *tutti* boteretsu batekin bukatzeko. Franck-en *Fantaisie-Idylle*

delakoan pedalean egindako lan ona aipa genezake. Bukatzeko, eta opari gisa, Schubert-en *Ave Maria* eman zuten, jatorrizko bertsoan eman gainera, alemanez.

Era polita izan zen organo erromantikoaren zikloa hasteko. Hurrengo asteotan ere hainbat hitzordu interesgarri daude Bergaran musikaren laguntzat. Hurrengoa urtarrilaren 24an izango da, eta emanaldi hori Jose

Manuel Azkue oiartzuarrak egingo du. Hirugarren emanaldia otsailaren 7an izango da, eta Roberto Antonello organo jotzaileak egingo du. Azkeneko emanaldia otsailaren 14an izango da eta bi organo jotzailek hartuko dute parte, Oscar Candendo antzuolarrak eta Loreto Aramendik, hain justu ere.

Emanaldiok 20:00etan izango dira, San Pedro parrokian.



**'ZORAMENA'**  
Gatibu

Asko gustatu zait Gernikako taldeak atera duen diskoa, batez ere, erabiltzen duen euskaragatik. Oso ohituta gaude euskara batua entzuten euskal musika taldeen kantuetan, baina bizkaieraz oso gutxi abesten dute. Gatibukoek bizkaieraz abesten dute, eta horregatik aukeratu dut. Gure euskalkia da eta gertutasun horrek arreta piztu dit. Bestalde, euskara batua baino goxoagoa iruditzen zait bizkaiera, eta kante goxoagoak dirudite, nahiz eta hitz gogorak erabili. Musika ere oso ona iruditzen zait. Ez naiz musikan oso aditua, baina Gatibukoen eritmoak oso gustuko ditut. /USOA AGIRRE



**Kepa Lizarralde**

Arrasatearra. 24 urte. Arrasate Euskaldun Dezagun elkartearen kultur teknikaria.

KALERATUBERRIAK/ Iban Arantzabal

LIBURUA / Errezeta liburua



**SUKALDEAN**

Hasier Etxeberria eta David de Jorge  
Lur  
800 orrialde

Milatik gora errezeta erabilgarri aurkituko dituzu liburua honetan. Guztiak etxeko sukalderako pentsatuak. Eguneroko sukaldeaz dihardute liburua honetan, elikaduraren oinarria osatzen duen horretaz.

Liburuaren arduradunek diotenez, "txorakeriarik gabe, ondoriozko sukaldea da proposatzen duguna".

Plutonetik ekarri bariko errezetak dira, etxe-etxeokak. Ekonomia izan da zaindu den beste faktore bat errezetok hautatzekoan. Hasier Etxeberria eta David de Jorgek apailatu dute liburua. Baliteke irakurleak faltan sumatzea argazkiren bat...

LIBURUA / Ipuinak



**BEGIZ JOTAKO IPUINAK**

Hainbat idazle  
COFF  
158 orri

Koldo Izagirre, Lourdes Oñederra, Arkaitz Cano, Anjel Lertxundi, Saizarbitoria, Juan Garzia, Arantxa Iturbe, Xabier Montoia, Jon Alonso, Iban Zaldúa, Unai Elorriaga, Iñazio Mujika Iraola, Edorta Jimenez, Aurelia Arkotxa eta Joseba Sarrionandia. Horiek guztiak dute ipuin bana liburuan.

Fotogramak dirudite liburu-ko irudi askok, filmaren barruan, osotasun batean, ulertu ahal izango genituzkeen puskak. Osotasunaren ezina adierazten dute, izatetik, bertatik, film galdu baten fotograma horiek. Narratzaileak gaiak daude, baina eten da daude.

LIBURU-DISKOIA / Pianoa



**MANDARIN DOTORE**

Rafa Eiguren  
Joserra Senperena  
Jose Luis Zumeta  
Paper hotsak

Liburu-disko formatuan kaleratu zen abenduan Paper Hotsak-en eskutik. Gaztelupeko Hotsak-en liburu editorial berria da Paper Hotsak. Musikarekin harremana duten hitzak kaleratzera bideratua dago. Lehen proposamen honetan, Rafa Eigurenek Tang olerkiak dakartzkigu, txineratik euskarara zuzenean eginiko lehen itzulpena. Hitz hauek Jose Luis Zumetak bilakatu ditu irudi eta Joserra Senperenak musika. Hitz, irudi eta musikaz osaturiko poesia proposamena da. Edizio mugatua da, eta ausartu gara ateratzera dendaren baten aurkitu dugulako aleren bat.

# Urtarrilak 23-30

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguzteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com) • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

## MUSIKA

### ANTZUOLA

► **Agur Intxorta maite: 1936-39 gudako kantuak** delako emanaldia egingo dute Joseba Tapiak, Arkaitz Minerrek eta Jesus Aranburuk etzi, domeka, eskolan, 19:00etan.

### ARRASATE

► **Never Surrender, Emboskada eta Cyprinidians** taldeen emanaldia egongo da bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

### BERGARA

► **Jose Manuel Azkue organo jotzaileak** kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, San Pedro parrokian, 20:00etan, Azkoitia, Bergara eta Azpeitiko udalek antolatutako Organo Erromantikoaren Nazioarteko V. Zikloko kontzertuen barne.

► **Udal musika bandaren** kontzertua egongo da etzi, domeka, udal pilotalekuan, 12:30ean.

## ANTZERKIA

### ESKORIATZA

► **Griot ipuin kontalari madrildarrek** emanaldia egingo dute datorren egubakoitzean, urtarrilak 30, Unibertsitateko aretoan, 22:00etan.

**Carrión música, s.a.**

- Gitarrak, baxuak, anplifikadoreak, teklatuak, soinu ekipamenduak.
- Pianoak eta trikitixak errentan hartzeko aukera, eta erosteko.

Manuel Iradier 20 / Dato 42  
Tel.: 945 23 07 49  
GASTEIZ

Txinatar jatetxea  
**DRAGON ORIENTAL**



### OÑATI

► **Yuri Sam** antzezlan eskainiko du Antzerkiola Imaginarioa taldeak datorren egubakoitzean, hilak 30, Santa Ana antzokian, 22:30ean.

## LEHIAKETAK

### ARRASATE

► **Tortilla lehiaketa** deitu dute hilaren 31n, zapatua. Izena emateko mugaeguna hilak 26a da, eguena. Argibideetarako, jo Gazte Kontseilura.

### DEBAGOIENA

► **Martxoaren 8ko kartel lehiaketa** deitu du Arrasateko Udaleko Emakume Sailak. Kartelak 50 x 70 zentimetrokoak izango dira, gehienez. Teknika librea izango da, baina derrigorrez agertu beharko da honako leloa: *Martxoak 8 gure eskubidea delako*. 800 euroko saria jasoko du irabazleak. Parte hartzeko, bidali lanok Arrasateko Udaleko Emakume Sailera, otsailaren 16a baino lehen.

## JAIK

### BERGARA

► **San Paulo jaiak** ospatuko dituzte Ubera auzoan asteburuan. Gaur, egubakoitza, bakailao-jana egingo dute, soinu jotzaileek girotuta, 20:30ean; bihar, zapatua, tortilla-txapelketa egingo dute lehenbizi, 12:00etan; 15:30ean, mus txapelketa egongo da, eta 16:30ean, kukainak. Segidan, txokolate-jana. Azkenik, etzi, hilak 25ean, meza nagusia izango dute 10:30ean, eta salda eta txorizo jana, 11:00etan.

## DEIAK

### ARETXABALETA

► **Takolo, Pirritx eta Porrotx** pailazoek *Poxpolin Marisorgin*

ikuskituz berria eskainiko diete herriko ume eta gaztetxoei bihar, zapatua, kiroldegian, 17:30ean. Sarrerak salgai daude Algara ludotekan, kirol etxean eta kultura etxean, 3 euroren truke.

### ARRASATE

► **Amnistia Internacional taldeko Emakume Sarea** aurkezteko hitzaldia egongo da hilaren 27an, martitzena, Monrerronen, 19:00etan.

### BERGARA

► **Ilartargi astronomia taldea** gaur elkartuko da, egubakoitza, kultura etxean, 19:00etan. Eguraldi ona badago, Gorlara joango dira ikusketa egitera; bestela, solasaldia izango dute. Nahi duen orok har dezake parte.

► **1956an jaiotakoek** afaria egingo dute urtarrilaren 31n Azpeitxi jatetxean. Izena emateko, deitu Azpeitxi jatetxera (943 76 55 00). Urtarrilaren 25a, domeka, duzue mugaeguna.

### DEBAGOIENA

► **Baserriko plastikoak jasoko ditu** Deba Garaia Mendi Nekazaritza elkarteak hilaren 27an, martitzena, herri bakoitzeko ohiko lekuotan.

► **EHNE sindikatuko kideek** hileroko batzarra egingo dute datorren egubakoitzean, hilak 30, Bergarako Artekalean duten egoitzan, 21:00etan.

### OÑATI

► **Aratusteetan dantza egiteko** ikastaroa deitu du Oñatz dantza taldeak. Aurten, Jauziak dantza egingo dute otsailaren 21ean. Ikasi gura duen guztiak entseguetan parte hartzeko aukera izango du: Oñatzek Errekalden duen egoitzan izango dira, martitzenean, 20:00etan, eta zapatuetan, 12:00etan.

## ERAKUSKETAK

### ANTZUOLA

► **Espaniako gerraren** inguruko erakusketa bisitatzeko aukera egongo da asteburu honetan, urtarrilak 24 eta 25, Olanan etxean, 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:00etara.

### ARRASATE

► **Emakumeak (giza eskubideak,**

**emakumearen eskubidea)** erakusketa egongo da Monrerronen, hil amaierara arte. Amnistia Internazionalak antolatuta du.

### BERGARA

► **Joe Jimenez** margolari mendarorraren erakusketa bisitatzeko aukera dago Masterreka kaleko Nahikari tabernan, hil bukaerara arte.


► **Vicente Martin Calderon** margolariaren erakusketa egongo da hilaren 27tik aurrera, martitzena. Bisita orduak: astelehenean egubakoitzera, 18:00etatik 21:00etara; zapatu eta jai egunetan, 12:00etatik 14:00etara.

### EIBAR

► **Diego Moyua** margolari oñatiarraren olio-lanak ikusteko aukera egongo da Arrate kultura elkartearen Topaleku aretoan (Zuloagatarren, 3), otsailaren 1era bitartean, astegunetan, 19:00etatik 21:00etara; zapatu eta jai egunetan, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

### OÑATI

► **Marilu Untzurruntzaga oñatiarra eta Maria Luisa Gorrotxategi**



► KONTZERTUAK

## FERMIN MUGURUZAREN EMANALDIA HILAREN 30EAN ARRASATEN

Fermin Muguruza musikariak kontzertua eskainiko du Arrasateko Musakolako kiroldegian datorren egubakoitzean, urtarrilak 30. Arrasateko Anger eta Bilboko Iraina taldeek ere joko dute. Arrasateko gaztetxeko taldeak eta Gazte Kontseiluak antolatutako Gazte Asteko lehen ekintza izango da hori; otsailaren 6ra arte, hainbat ekitaldi egongo dira aste horren barne. Oraingoan, Fermin Muguruza, Anger eta Iraina-ren kontzerturako sarrerak salgai jarri dituzte dagoeneko honako tabernotan: Irati eta Ekaitz, Arrasaten; Pol-Pol, Bergaran; eta Urbaltz, Aretxabaletan. 10 euro kostatzen dira sarrerok, bai aldeaz aurreko salmentan, bai eta txarteldegian erosita ere.

**Non:** Musakolako kiroldegian; sarrerak salgai hainbat tabernatan. **Noiz:** urtarrilaren 30, egubakoitza. **Ordua:** 21:30ean.

Araba etorbidea 3 ARRASATE







**AIPAGARRI**

**Diego Moiuia**

OÑATI

**E**ibarko Arrate kultura elkarteak antolatuta, erakusketa zabalduko du gaur, egubakoitza, Diego Moiuak, Topaleku gunean. 20 olio-lan jarriko ditu ikusgai. Otsailaren 1era arte egongo da zabalik, astegunetan, 19:00etatik 21:00etara, eta asteburuetan, 12:00etatik 14:00etara.



**Iñigo Gallastegi**

BERGARA

**A**urreko asteburuan, Kataluniako igeriketa errekor bat lortu zuen Iñigo Gallastegi igerilari bergararrak. 30 eta 35 urte bitartekoan mailan, 100 metro estiloetan, hain zuzen ere, 1:06:40 marka ezarri zuen. Orain dela urtebetetik hona, Bartzelonan bizi da Iñigo.



**Yeray Varela**

OÑATI

**A**urreko domekan, Gipuzkoako kross txapelketa irabazi zuen Yeray Varelak, gazte mailan. 16 minutu eta 26 segundu behar izan zituen, 5.150 metro egiteko. Zestoan jokatu ziren txapelketa horiek. Markel Blanco arrasatearrak, berriz, kadete mailako Gipuzkoako txapela irabazi zuen.



**Izaro Perea Valdivieso**  
Arrasate • Urtarrilaren 14a • 3,330 Kg. • Gurasoak: **Montse Valdivieso** (Arrasate) eta **Miguel Perea** (Aretxabaleta). Argazkian, umea gurasoekin.




**Oihan Astaburuaga Zabalo**  
Arrasate • Urtarrilaren 16a • 3,720 Kg. • Gurasoak: **Aitor Astaburuaga** (Arrasate) eta **Arantxa Zabalo** (Arrasate). Argazkian, umea Pello lehengusuarekin.



**Iker Gil Albizu**  
Eibar • Urtarrilaren 19a • 3 Kg. • Gurasoak: **Amaia Albizu** (Oñati) eta **Aitor Gil** (Bilbo). Argazkian, umea gurasoekin, Debagoieneko Ospitalean.



**Malen Artetxe Arregi**  
Arrasate • Urtarrilaren 20a • 3,490 Kg. • Gurasoak: **Romu Artetxe** (Zumaia) eta **Ainhoa Arregi** (Arrasate). Argazkian, jaioberria gurasoekin.



**Olatz Gallastegi Visitacion**  
Bergara • Urtarrilaren 19a • 3,380 Kg. • Gurasoak: **Asier Gallastegi** (Bergara) eta **Maribi Visitacion** (Bergara). Argazkian, umea amaren besoetan.



**Iraia Nieto Gorosabel**  
Arrasate • Urtarrilaren 21a • 2,670 Kg. • Gurasoak: **Ainhoa Gorosabel** (Arrasate) eta **Luis Nieto** (Bergara). Argazkian, umea aita-rekin.

**GOIENKARIA**  
Astero 21.500 etxetan.  
Eskelen prezioa: 80 €.

- HILDAKOAK**
- Antonia Arrieta Intxausti.** Bergaran, urtarrilaren 10ean. 73 urte.
  - Maritxu Loidi Gabilondo.** Bergaran, urtarrilaren 10ean. 87 urte.
  - Caridad Hidalgo Moro.** Aretxabaletan, urtarrilaren 11n. 91 urte.
  - Margarita Iribecampos Agirre.** Arrasaten, 12an. 86 urte.
  - Jose Luis Zabaleta Gantxegi.** Bergaran, urtarrilaren 13an. 82 urte.
  - Felix Mendizabal Beitia.** Aretxabaletan, urtarrilaren 13an. 76 urte.
  - Felisa Larreina Txabarri.** Bergaran, urtarrilaren 14an. 81 urte.
  - Damian Agirreurreta Erguin.** Arrasaten, 16an. 77 urte.
  - Ciriaco Arriaran Txintxurreta.** Oñatin, urtarrilaren 17an. 97 urte.
  - Manuel Larrañaga Garitano.** Bergaran, urtarrilaren 18an.
  - Manuela Muguruza Lizasu.** Bergaran, urtarrilaren 19an. 87 urte.



**Mari Karmen Pacheco** eta **Joserra Gomez** aramarioarrek 25 urte bete dituzte ezkontuta. 1979ko urtarrilaren 20an, hain zuzen ere, ezkondu ziren. Bihar, zapatua, familiarterko bazkari batekin ospatuko dituzte zilarrezko etzeiak. Zorionak, bikote, eta urte askotarako, familiarren partetik!

**ESKER ONA**

**Ceferina Altuna Abasolo**  
*Arrasateko Txaparro baserrikoa*

Santurtzin hil zen 2004ko urtarrilaren 19an, 103 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.*

**ESKER ONA**

**Manuela Muguruza Lizaso**  
*Jose Mari Bengoaren alarguna, Agarre baserrikoa*

Bergaran hil zen 2004ko urtarrilaren 19an, 87 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.*

**ESKER ONA**

**Ibonne Gomez Gutierrez**  
*Domingo Irazolaren alarguna*

Bergaran hil zen 2003ko urtarrilaren 19an, 85 urte zituela.

*Lehen urteurreneko mezara joandakoei, eskerrik asko sendikoen izenean.*

**ESKER ONA**

**Antonia Arrieta Intsausti**

Bergaran hil zen 2004ko urtarrilaren 9an, 73 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.*

**ESKELA**

**Julen Olaortua Gabilondo**  
Elgetan hil zen 2004ko urtarrilaren 22an, 14 urte zituela.

*Betiko.*

Elgetako koadrila:  
Magu, Juaristi, Elorza, Xabi eta Perdo.

## HITZGEZIDUNAK

Luma

	Jakintsu	Agur	New ...
	* Izena	Palmondoaren fruitu	EEBBetako hiria
	Hegazti mota		
	Ez eme		
Baserrian bizi dena	Gizonezko izena		
Aurtiki, bota	Eritzi, aburu		
		Kontsonante a	
		Berba, hitz	
Polizia nazi	Bizk., ile		* Deitura
Bat-batean	Bizkaiko mendia		
		Lawrentzioa	
		Infin., erantz	
Noren atzizkia	E hirutan		
Oinarritzko edari	Iritzi, uste		
	Presio-unitate		Potasioa
	Sufrea		Musika nota
Lerro meteorologikoa			
Utik !			
	Lurpeko pasabide		
	Suari dari-ona		
Ados			500
Lanabes			Tona
	Lagatze		

## BILABILA7



## UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaia argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

### BABAK EZIN BIGUNDU

Plaentxiar bat, forjako biargiña gaiñera, baziarduan Gilanian bazkarixa jan naxan. Jan baiño geixago, burua mobitxu, ixilleko berbak esan eta aurpegi asarratua ipintzen zeban. Etxekoandriak esaten detsa:

- Zer, ez jatsu jana gustatzen ala?  
- Zelan gustauko jatan ba! Guk, forjan, burdiñakin saldia eitzen jonau, eta emen, zuen taberna onetan, babak ezin biguntzeko. Zer arraixo egitten doze?

### DANAK KABITZEN DIRA?

Ama bat gaixorik zeguan oian. Estutu zan, gaiñera, 40ko kalenturia zeukala konturatu zanian. Priska bialdu zeban bere alabaxua Artadi medikua- rengana. Alako gizon aundixari erderaz berba eñ bihar jakuelakuan, medikuaren aurrera eldu zanian, umetxuak, estu ta larri:

- Señor médico, ¡la madre está con 40 en la cama!  
Artadik:  
- ¡Con 40 en la cama!, ta danak kabitzen dira?

## EZETZASMATU!

Estepan Plazaola



### Zein urtetan banandu ziren Eskoriatza eta Aretxabaleta?

Saso batean, Leintz bailarako herriak (Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasate) batuta egon ziren. Arrasatek 1260an utzi zuen multzo hori eta Gatzagak 1331n. Handik aurrera, Leintz bailara izena Aretxabaleta eta Eskoriatza eta bertako elizateendako geratu zen. Baina noiz arte iraun zuen batasun hark? Noiz banatu ziren Eskoriatza eta Aretxabaleta?

- 1630
- 1845
- 1407
- 1780

Erantzun zuzena: 1630.

## SOLUZIOAK



A	R	E	•	U	Z	E
•	D	•	R	O	K	•
U	T	•	N	•	E	L
A	R	•	A	B	O	•
•	K	•	R	B	•	•
E	E	•	N	•	E	•
R	L	•	N	•	A	•
•	E	•	L	•	U	•
K	•	I	•	R	T	•
R	O	•	A	•	I	•
O	•	A	•	K	•	•
Y	•	A	•	D	•	•
•	A	•	•	•	•	•

## ASTEKO HOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkarte

### ARIES

martxoak 21-apirilak 21

Zure ingurukoekin arazoak izango dituzu; izan ere, indibidualistegia zara eta gauzak zeure erara egiten dituzu. Hori dela eta, bai zuri bai zure ingurukoekin eragingo dieten erabaki garrantzitsuak hartuko dituzu, inori galdetu barik.

### TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21

Taurus zeinua dutenen bizitzako alderdi guztietan nahaste-borrastea izango da nagusi. Dagoeneko ez dakizu zer gura duzun, zein diren zure helburuak... Eta erreflexionatu egin beharko duzu helburuak finkatzeko.

### GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21

Zure nekazintasanari eta konstantziari esker, hain denbora luzean borrokatzen ibili zaren helburuak bete egingo dira. Astean barrena konprobatuko duzu hori.

### CANCER

ekainak 22-uztailak 22

Lanean arazoak izango dituzu; hanka-sartze baten eraginez, zure postua hobetzeko aukera galduko duzu. Bestalde, jaten eta edaten egingo dituzun gehiegikeriek kalte egingo dizute; hortaz, zaindu.

### LEO

uztailak 23-abuztuak 22

Hainbat lan-proposamen egingo dizkizute, eta duda-mudatan ibiliko zara, ez duzu jakin izango zein aukeratu; izan ere, soldata hobereana eskaintzen duen lanak ez zaitu aseko, eta alderantziz.

### VIRGO

abuztuak 23-irailak 22

Zure bizitzako hainbat alderditan geldirik eta ase-bete egingo zara; hori dela eta, aldaketa beharra izango duzu. Baina orain ez da aldaketa horiek egiteko sasoa; horiek egin aurretik, informazioa eta aholkularitza eskatu.

### LIBRA

irailak 23-urriak 22

Eginbehar ugari edukiko dituzu, eta ezin izango duzu egin aurretik pentsatuta zeneukan bidaia atsegingarria. Bestalde, ingurukoekin arazoak izango dituzu; izan ere, zure irizpide eta ikusmoldeak inposatzen ohituta zaude.

### SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22

Zure ekimen eta proiektuak geldirik daude, aldaketa batzuk egin behar dira-eta. Besteen iradokizunei kasu egiezu, oso erabilgarriak izango zaizkizu-eta.

### SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21

Hartu-emanetan krisialdia; uste duzu hartu-emanok ez dizutela ekarpenik egiten. Harreman berriak egiten ahaleginduko zara, estimulu berrien premia duzu-eta.

### CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20

Lanean erantzukizun handiagoak izango dituzu, eta gaizki sentituko zara arazoak birengatik: bate-tik, ez duzu soldata-igoerarik izango; eta, bestetik, ez duzu esker onik jasoko egindako lanagatik.

### AQUARIUS


urtarrilak 21-otsailak 20

Bikotekidearekin duzun harremana sendotuz eta indartzuz joango da. Eta ez bikotekiderik ez bada-uzazu, mutil/neska bat ezagutzeko aukera izango duzu, baita harreman egonkorra hasteko ere.

### PISCIS

otsailak 21-martxoak 20

Amets egiteko eta fantasien munduan bizi izateko daukazu joerak kalte egin diezazuke, batez, ere, lanean; izan ere, oso kontratu aproposa sinatzeko aukera gal dezakezu.



GIPUZKOAKO  
ASTROLOGI ELKARTEA



## Tipi-tapa aurrera egingo dugu.

Seme-alabentzako ametsetako leku batean pentsatzen dudanean, zera datorkit gogora: lankidetzaz, elkarbizitzaz eta berrikuntzaren bilatoki bat, eta garrantzitsuena pertsona izan dadila. Leku honetan seme-alabek, bertako profesionalak eta guk elkarrekin egiten dugun bidea, lehenengo urratsetatik. Eskutik helduta.

**Informa zaitez!**

902 11 20 25

[arizmendi@arizmendi.ikastola.net](mailto:arizmendi@arizmendi.ikastola.net)


  
**Arizmendi ikastola**  
*geurea, zeurea*



**Goienan, herriz herri**  
MARTITZENA 27 / 20:30 eta 22:30

**Bigarren aldiz Arrasate protagonista**

Alberto Gorritibereak denboraldiko bigarren *Herriz herri* saioa eskainiko dio Arrasateri. Hala, Inazio Lakunza alkateak aukera izango du, berriz ere, herrian egin dituzten eta egiteko dituzten proiektuen berri emateko.



**Txintxaun**  
EGUAZTENA 28 / 20:30 eta 22:30

**Gero eta hurbilago dago lehiaketako final handia**


Dagoeneko ez da ezer falta *Txintxaun* saioko final handia jokatzeko. Hala, final horretan zeintzuk izango diren jakiteko lehiaketak aurrera egingo du martitzenean. Egun horretan, Arrasatekoak eta Elgetakoak ibiliko dira lehian.



**Sarrera doan**  
EGUENA 22 / 20:30 eta 22:30

**Afari bikain baten zozketan parte hartzeko aukera**

Arrasateko Arteaga jatetxearen eskutik, *Sarrera doan*-ek bi lagunendako afaria zozketatuko du laster. Egue-nero, 943 71 23 93 telefonora egindako deialde batekin parte hartzeko aukera dute ikusleek. Zozketa hilaren 29an egingo dute.



**Gaurkoak**  
EGUNERO / 21:00 eta 23:00

**Egunak jasotako albiste guztiei gainbegiratu**

Eguneko albistegiak ikusi ezin dituztenendako, formula bikaina eskaintzen du *Gaurkoak* tartea. Labur, argi eta zehatz eskaintzen ditu Debagoienean izan diren gaurkotasun-albistek. Hitzorduak 21:00etan eta 23:00etan.

**TELEBERRIAK**

**Santiago-bidea egin beharko dute ETBko lehiaketa berri baten**  
*La Flecha amarilla* izango da lehiaketa berriaren izena eta Euskal Telebistaren bigarren katean emango dute. Lehiakideek Santiago-bidea egin beharko dute, oinez, hamahiru etapatan. Udaberriaren hasiko dira saioa emititzen eta uztailearen 25ean amaituko da, Santiago egunean. Parte hartu nahi duenak 806 51 75 57 telefonora dei dezake edo *laflecha@eitb.com* helbidera idatzi.

**'Hau komeria!' saioa kendu dutela salatu dute ETBko langileek**  
Euskal Telebistako Langile batzordeak ETBko programazioaren eskaintza kulturalaren murrizketa progresiboaren aurrean bere kezka azaldu du, batez ere *Hau komeria!* eta *Desde el gallinero* desagertu direlako. Batzordearen arabera, denboralditan Euskal Herrian arte eszenikoaren hedapenean erreferente izan den eskaintzak programazioan lekurik ez edukitzea nekez uler daiteke, 185 programa emititu eta hainbat sari jaso ondoren.

**GECAREN arabera, bakarrik ikusten dugu telebista gehienetan**  
Geroz eta gutxiagotan ikusten omen dugu telebista etxekoez inguratutik. GECAREN (Gabinete de Estudios de Comunicación Audiovisual) Telebista Urtekariaren arabera, telebista ikusten ematen dugun denboraren ia erdia (% 44) bakarrik egoten gara.

**ASTEKO PROGRAMAZIOA / Urtarrilaren 23tik 29ra**

EGUBAKOITZA 23	ZAPATUA 24	DOMEKA 25	ASTELEHENA 26	MARTITZENA 27	EGUAZTENA 28	EGUENA 29
13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Sarrera doan 14:30 Berriak 15:00 Iluntzean 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera  19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Astebete 21:00 Gaurkoak 21:15 Soinuz blai 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Astebete 23:00 Gaurkoak 23:15 Soinuz blai 23:45 Emisio amaiera	13:30 Astebete 14:00 Soinuz blai 14:30 Txintxaun 15:00 Iragana gogoratuz: Basoko lanbideak 16:00 Sarrera doan 16:30 Iluntzean: Amaia Zubiria 17:00 Emisio amaiera	13:30 Astebete 14:00 Soinuz blai 14:30 Txintxaun 15:00 Iragana gogoratuz: Basoko lanbideak 16:00 Sarrera doan 16:30 Iluntzean: Amaia Zubiria 17:00 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Astebete 14:30 Berriak 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera  19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Harmailatik 21:00 Gaurkoak 21:15 Harmailatik tertulia 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Harmailatik 23:00 Gaurkoak 23:15 Harmailatik tertulia 23:45 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Harmailatik 14:30 Berriak 15:00 Harmailatik tertulia 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera  19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Herriz herri: Arrasate 21:00 Gaurkoak 21:15 Herriz herri: Arrasate 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Harmailatik 22:30 Gaurkoak 23:00 Herriz herri: Arrasate 23:00 Gaurkoak 23:15 Herriz herri: Arrasate	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Herriz herri: Arrasate 14:30 Berriak 15:00 Herriz herri: Arrasate 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera  19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Txintxaun 21:00 Gaurkoak 21:15 Soinuz blai 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Txintxaun 23:00 Gaurkoak 23:15 Soinuz blai 23:45 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Txintxaun 14:30 Berriak 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera  19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Sarrera doan 21:00 Gaurkoak 21:15 Iluntzean 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Sarrera doan 23:00 Gaurkoak 23:15 Iluntzean 23:45 Emisio amaiera
20:30 Astebete			21:15 Harmailatik tertulia	20:30 Herriz herri: Arrasate	20:30 Txintxaun	21:15 Iluntzean

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: [goitb@goiena.com](mailto:goitb@goiena.com) • Telefonoa: 943 71 23 95

**KAMERA AURREAN**



*"Berandu hasi nintzen kantuan. Aurretik lan asko egindakoa naiz. Ezkondu eta umeak izan nituen. Gero, bereizi nintzenean, hasi nintzen nire betiko asmoa betetzen"*

Amaia Zubiria / Abeslaria  
ILUNTZEAN (2004/01/22)



*"Abiadura Handiko Trenaren geltoki bat Debagoienean egon daiteke. Hala ere, ezin dezakegu itxaropen faltsurik egin. Gaia ikertzeko dago-eta oraindik"*


Alvaro Amann / Garraio eta Herrilan sailburua  
BERRIAK (2004/01/21)

**TELEBEGI / Maria Agirre**

*Tximistak*

Joan den aste bukaerako tximistek izan dute eraginik telebista seinalean. Aretxabaleta, behintzat, domeka goizean telebista barik geratu zen. Beno, Murutik seinalea jasotzen dugunok geratu ginen telebista barik, Euskaltelen bazkide direnek lur azpitik jasotzen baitute telebista seinalea. Teknologia berriak hasi dira eguraldiari aurre egiten. Lehen, tximistak antena jo eta herri osoa geratzen zen telebista barik. Orain, DVD, telebista digitala edo kablea dela... xarma apur bat galdu da. Gogoan dut elurteen ondorioz telebista barik geratu, eta kaleak jendez betetzen zirela. Baina tximistek GOITBri eragin diote gehien. Bergaran, Elgetan eta Oñatin lehenago, baina gainontzeko herrietan ezin izan zuten GOITB ikusi martitzen ilunkara arte. Behingoz, Euskaltel GOITBren seinalea lur azpitik eskaintzen hasten bada, ez da halakorik gertatuko. Ea laster hasten diren, noiz edo noiz tximista gehiago izango baita.





**Aurrerkealdia**

**SPORTLAND ARRASATE**  
Garibai Etorbidea, 2-6

**%50** eraino  
oinetakoetan  
eta kirol modan

**SPORTLAND**  
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

[www.forumSPORT.com](http://www.forumSPORT.com)

## Atzeskua

USOA AGIRRE

# Jesusi Etxebarria/ Musika irakaslea

**N**olatan hasi zinen musika irakasten? Oso txikia nintzenan, izeba moja batek irakatsi zidan solfeo eta gero Munarriz maisuarekin eta Juanito Artzamendirekin pianoa ikasi nuen. 20 bat urterekin hasi nintzen musika irakasten.

**Etxera joaten zitzaizkizun ikasleak hasieran.**

Bai. Urte askoan aritu izan naiz nire etxean solfeo eta pianoa irakasten, baina, ikasleak gehitu ahala, lokal batera pasa behar izan nuen eskola.

**Pianoa, txistua, gitarra eta baxua irakasten dituzu. Zein duzu gustukoena?**

Pianoa, zalantzarik gabe. Abesteko orduan gitarra ere gustatzen zait, baina pianoa dut instrumentu kuttunena.

**Arrasaten badago musikarako zaletasunik?**

Bai, badago. Orain, gazte asko etortzen zaizkit gitarra elektrikoa jotzen ikastera.

Gitarra elektrikoa eta baxua jotzen ikasten dute eta gero musika taldea osatzen dute.

**Joaten zara talde horien kontzertuetara?**

Joango nintzateke, baina ez

dut nire burua horrelako kontzertu batean ikusten, zaharregia naiz horretarako.

**Behar da musika ikas-tereko dohain berezirik?**

Ez dut uste ezer berezirik behar denik. Belarri pixka bat eduki behar da, baina, musika gustatuz gero, edozeinek ikas dezake instrumenturen bat jotzen.

**Zer behar da musikari ona izateko?**

Lehenik eta behin, musika gustatu eta sentitu egin behar da. Pazientzia eta belarri ona ere behar dira.

**Izan duzu jeniorik ikasleen artean?**

Aitor Olea organo eta piano jotzaile ezaguna, adibidez, nirekin hasi zen pianoa ikasten; Donostiako Kontserbatoriora joan zen gero.

**Bizi daiteke musika eginez?**

Oso zaila ikusten dut. Musika irakasten ez bada, oso zaila da profesionalki horretan jardutea.

**Ze musika duzu gustukoena?**

Musika klasikoa gustatzen zait; opera, batez ere. Chopin, Bach eta Mozart oso gustuko ditut.

**Gustuko duzu oraingo gazteek entzuten duten musika?**

Ez zaizkit oraingo taldeak askorik gustatzen.

Metallica, AC/DC eta Ramones, adibidez, atsegin ditut, baina metal musika egiten duten gainontzekoak ez zaizkit batere gustatzen.

**Zer falta du Arrasatek?**

Opera eta zarzuela gehiago antolatzea gurako nuke. Abenduan Arrasate Musikalekoek egin zuten zarzuela oso ondo egon zen, baina gauza gehiago egotea nahiko nuke.

**Musika ezinbestekoa da bizitzan?**

Bai, zalantzarik gabe. Musikarik gabe ezin da bizi. Nik, behintzat, ez dakit zer egingo nukeen musika edukiko ez banu.



**“Pianoa dut instrumentu gustukoena. Abesteko, gitarra ere atsegin dut”**

**“Musikari ona izateko musika gustatu eta sentitu egin behar da. Pazientzia eta belarri ona ere behar dira”**

**“Arrasaten opera eta zarzuela gehiago antolatzea gurako nuke”**

► Arrasate / 60 urte / Musika eskola du Arrasaten

## PIPERRAUTSA

### Susmopean

**J**akin nezakeen, GOIENKARIAkoei entzunda, Arizmendi ari zela prestatzen publizitate ekimen bat, bidean zuela orri osoko iragarkia eta enkartea urtarrilaren erdian emateko. Jakin nezakeen emaztearen bidez ere, bera Arizmendiko langilea izanik. Baina ez nekien.

Ez nekielako idatzi nuen joan den asteko zutabea, *Arizmendi* izenburupean. Eta txiripaz tokatu zen publizitatearen ale berean, eta hori dela-eta sentitzen naiz orain susmopean, irakurlearen konfiantza galtzeko arriskuan, zaindu nahi izan dudana zintzotasuna kolokan legokeelako.

Sinesteko prest dagoenari esan nahi diot aspaldiko hilabeteetan eduki dudala izoztuta gai hau. Hain zuzen, eskoletako izenemate sasoiak eta zaintzen aritu naizela, inork ez zezan ikusi nire hitzetan joera interesaturik. Badut eskolen arteko lehiaren berri, eta badakit lehiakideak oso sentibera jartzen direla une jakinetan. Hargatik zuhurtzia. Gainera, ez naiz inor juzkatzeko eskola aukera bakoitzaren balioak edo abantailak. Arizmendi aitzakia hartuta, azpimarratu nahi nuen Debagoienaren gaitasuna bere kabuz antolatzeko, eta hau adierazten duen urrats berria.

Sinesten ez duenari, esan nahi diot sentitzen dudala minik eragin badut. Bide batez, eta badaezpada, argi utzi nahi nuke oraingoa txiripa hutsa izan dela eta zutabe honek irauten duela iritzi sailean, ez dela aldatu publizitatara.

MIKEL IRIZAR

orain

Debagoiena  
esku-eskura

Goiena.net  
Debagoieneko ataria Interneten

herriko albisteak sarean • eztabaidak • agenda • ...